

HAURTZARO IKASTOLA



Hizkuntz Proiektua

Aurkibidea

1. IKASTOLAREN TESTUINGURU SOZIOLOGIKOA	4
2. HAURTZARO IKASTOLA ETA HIZKUNTZAK; BILAKAERA HISTORIKOA ...	6
3. HIZKUNTZ PROIEKTUAREN DEFINIZIOA ETA EZAUGARRIAK	7
3.1. Hizkuntz Proiektuaren definizioa	7
3.2. Hizkuntzekiko esku-hartze eremuak	7
3.3. Hizkuntz Proiektuaren ezaugarriak	9
3.4. Hizkuntz Proiektuaren kokapena	10
4. HIZKUNTZ PROIEKTUAREN IKUSPEGIA ETA HELBURUAK	11
4.1. Hizkuntzekiko helburu orokorrak eta zehatzak	11
4.2. Hizkuntzekiko erreferentziazko lorpen-mailak	12
5. HIZKUNTZ PROIEKTUAREN OINARRI TEORIKOAK	15
5.1. Hizkuntz eta kultur politikaren oinarriak	15
5.2. Hezkuntzaren ikuspegia	15
5.3. Hizkuntzaren eta hizkuntza-irakaskuntzaren ikuspegia	17
5.4. Hizkuntz erregistroen trataera	22
6. HIZKUNTZ PROIEKTUAREN PRESTAKUNTZA-IRIZPIDEAK	24
6.1. Prestakuntzaren esparruak	24


6.2. Prestakuntzaren ardatz nagusiak	24
7. HIZKUNTZ PLANGINTZA	26
7.1. Hizkuntza bakoitzaren lekua eta funtzioa ikastolako eremuetan	26
7.2. Eskolatzeko goiztiarra eta berantiarra	27
7.3. Gela barruko hizkuntzak	28
7.4. Gelaz kanpoko eremuen hizkuntzen banaketa	29
7.5. Eremu instituzionalean hizkuntzen banaketa	30
7.6. Hizkuntza erregistroen trataera	34
8. HIZKUNTZ PROIEKTUAR KUDEATZEKO IBILBIDEA	35
8.1. Ibilbidearen sekuentzia grafikoa	35
8.2. Ibilbidearen urratsak	36
9. HIZKUNTZ PROIEKTUAREN KUDEAKETARAKO EGITURA	39
10. AURRERANTZEAN... ..	40
11. ERANSKINAK	41

1

Ikastolaren testuinguru soziolinguistikoa

Hautzaro ikastola Oiartzunen kokatua dago eta %95ean herriko ikasleak eta familiak biltzen ditu. Beste %5a inguruko herrietakoak dira: Errenteria, Pasaia, Irun...

Eusko Jaurlaritzak 2006an eginiko inkestako datuen arabera, %72.94 euskaldunak dira. Baina Hautzaro ikastolako familia euskaldunen kopurua %77.61 da.



2008an Soziolinguistika Klusterrak egindako ikerketaren arabera euskararen kale erabilera %62koa da Oiartzunen.

Auzoka datuei erreparatuz, Elizalden hitz egiten da gehien euskaraz (%68,5) eta Arragua-Iturriotz-Ugaldetxo eremuan gutxien (%44). Karrika-Altzibar-Gurutze eremuan elkarriketen %56,4 da euskaraz.

Emakumeen artean gehiago hitz egiten da euskaraz gizonezkoen artean baino (%64 emakumeen artean; %58 gizonezkoen artean). Horrez gain, haurrak dira euren artean euskaraz gehien egiten dutenak (%80) eta adinekoak gutxien (65 urtez gorakoen %47).

Soziolinguistika Klusterreko datuek erakusten dutenez, Oiartzunen mantendu egin da euskararen erabilera indizea; 2005eko neurketan beherakada gertatu bazen ere, berriro ere 2001eko datuen parean dago.

2

Haurtzaro Ikastola eta hizkuntzak; bilakaera historikoa

Ikastolak euskal kultura berreskuratzeko, igortzeko eta indartzeko sortu baziren, Haurtzaro ikastolak *helburu horiekin bat egiten jarraitzen eta jarraituko du Oiartzunen, jarrera eraginkorra hartuz bere transmisioan*, aldi berean, beste lurraldeetako kultura eta hizkuntzei irekia, beraiegandik eta beraiekin aberastuz.

Haurtzaro ikastolako hizkuntza nagusia euskara da; horrela, gaztelaniadun gurasoekin izan daitezkeen harremanak izan ezik, komunitateko beste kideen arteko harreman pertsonalak euskaraz bideratzen dira.

Kudeaketa pedagogikoan eta administratiboan euskararen erabilera, osotasunean bermatuta dago.

- Herri baten funtsezko ezaugarrietariko bat hizkuntza denez, ikastolara iristen diren ikasle guztiek euskararen erabilpen zuzena komunikaziorako eta ikastolan eman daitezkeen ikasketetarako lor dezaten, *ikasle guztien lehen hizkuntza izatea izango du helburutzat*.
- Era berean, ematen edo eman daitezkeen hizkuntza kanpotarrak irakatsi, landu eta *sendotuko* ditu, eta egungo Euskal Herriko hizkuntza errealitatea kontuan hartuz, ikasleen gaztelaniako hizkuntza konpetentzia ziurtatuko du, edozein gizarte nahiz eskola giroan normaltasunez bizi daitezen
- Alde batetik, euskarak bere hizkuntza eremuan erabateko garapena lor dezan nahi dugu eta, bestetik, hainbat hizkuntzatan ondo moldatuko diren pertsonak prestatu. Hori dela eta, Eleaniztasunaren proiektua eramango dugu aurrera eta gure ikasleak euskara, gaztelania eta ingelesa jakin eta erabiltzera irits daitezen planifikatu beharko dugu irakaskuntza. Eleaniztasun goiztiarraren proiektuan murgilduta gaude duela hamar urte.
- Bestalde, frantsesa aukerazko gaia izango da Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan. Gaur egungo gizartean hizkuntza aniztasuna hezkuntza kalitatearekin identifikatzen da. Bestalde, Oiartzunen kokapena eta tradizioz hizkuntza hau ikasi duen herria izatea, badira arrazoi garrantzitsuak Ikastolak laugarren hizkuntza hau eskaintzeko.

3

Hizkuntz Proiektuaren definizioa eta ezaugarriak

3.1. HIZKUNTZ PROIEKTUAREN DEFINIZIOA

Hizkuntzak, haiek guztiak, ez dira ideia, nahi eta esperientziak pertsonen artean trukatzeko bitarteko soilak. Horrez gainera, hizkuntzak beraiei loturiko kulturen erakusle eta adierazpen sinboliko dira, kultura horien zati dira. Beraz, ez dago kultur edukirik gabeko euskararik eta ondorioz, zaila litzateke **Hizkuntz proiektua** definitzea euskal kulturari erreferentziarik egin gabe.


Hizkuntz proiektuak euskararen normalkuntza bideratu ahal izateko lan egin nahi du. Normalkuntza euskararentzat hiztunak mantentzera eta gehitzera zein erabilera eremuak irabaztera bideratutako prozesu sozialtzat definituko genuke. Horren kariaz, alderdi formal zein ez-formaletan, ahozko zein idatzizko elkarrekintzetan, hizkuntza komunitatearen barne erlazioetan euskara ohiko hizkuntza bihurtuz edo mantenduz.

Hautzaro Ikastolaren Hizkuntz Proiektua, euskara eta euskalduntasuna ardatz harturik, ikastolan lantzen diren hizkuntzen ikaskuntza-irakaskuntza eta erabilerari dagozkien alderdiak bildu eta haien trataerari koherentzia ematen dion markoa da.

3.2. HIZKUNTZEKIKO ESKU-HARTZE EREMUAK

Aurreko arrazoiketari jarraituz, Hizkuntza Proiektuaren markoa ezingo litzateke hizkuntz erabiltzaileen edo subjektuen baitan antolatu, ikastetxeko hizkuntzen normalizazio planetan hainbatetan gertatu ohi den bezala; eskolako komunikazio-eremuen baitan garatu beharko da; izan ere, eremu horietako bakoitzak berezko ezaugarri soziolinguistikoak ditu eta, horiei erantzunez, berariazko hizkuntz erabilerak sortzen dira bakoitzean. Horrenbestez, ezinbestekoa zaigu ikastolako komunikazio-testuingurua zehatz-mehatz aztertzea eta hizkuntzen garapenean eragiten duten Eremu guztiak, hots, *hizkuntzekiko esku-hartze eremuak* identifikatzea. Identifikazio horrek aukera emango digu hizkuntzen trataera ikuspegi sistemiko batez bideratu ahal izateko, eta esparru eta eragile askotarikoen arteko elkarreragina eta koherentzia ziurtatzeko.

Honako hau litzateke ikastolaren hizkuntzekiko esku-hartze eremuen sailkapen nagusia, ondoren zehazki deskribatuko dena.



Ikastola bere osotasunean hartuz, bi esku-hartze eremu nagusi bereiz daitezke:

- Eremu pedagogikoa: Ekintza pedagogikoarekin eta gela barruko interakzio didaktikoarekin erlazionatutako hizkuntza alderdiak biltzen dituena da. Curriculumak eta haien trataera instrumentala definitzen da, baita interakzio didaktikoa edo gela barruko harreman sareen hizkuntza kalitatea zein den. Horiez gain, xede pedagogikoak dituzten eskolaz kanpoko jarduerak ere jasotzen dira.
- Eremu instituzionala: Eremu honek ikastolako hizkuntza antolaketa eta ikastola eta kanpoko erakundeen arteko harremana zein hizkuntzatan egin arautzen du. Eta ikastoan nahiz ikastolatik kanpo euskararen erabilera sustatzeko eta babesteko helburua du nagusiki.

Honako taula honetan egin da aipaturiko eremuen zehaztapena:

HIZKUNTZEKIKO ESKU-HARTZE EREMUAK					
HEZKUNTZA-PROIEKTUA					
Hizkuntz Proiektua eta Hizkuntz Plangintza					
EREMU PEDAGOGIKOA			EREMU INSTITUZIONALA		
GELA BARRUKOA		GELAZ KANPOKOA (jolasaldiak, kirol ekintzak, jantokia, garraioa, itereak eta abar)	ERAKETA ETA BARNE-KOMUNIKAZIOA		KANPO-HARREMANAK (beste ikastetxeak, guraso-erakundeak, udal-erakundeak, erakundeak, hornitzaileak)
KUDEAKETA PEDAGOGIKOA	INTERAKZIO DIDAKTIKOA		IKASTETXEA	FAMILIA	
1. HIZKUNTZ ARLOKO CURRICULUM BATERATUA o Hizkuntza arloaren kudeaketa o Helburu, eduki eta ebaluazio inzipideak 2. BESTE ARLOETAKO CURRICULUMAK o Helburuak, edukiak eta ebaluazio-inzipideak (hizkuntzen tratuaren instrumentala). 3. PROIEKTU OSAGARRIAK o Zehar-lerroen hizkuntz tratuak o Euskararen eta euskal kultura sustatzeko ekintzak 4. IRAKASLEEN PRESTAKUNTZA o Hizkuntz hobekuntza o Arloko metodologiak eta didaktika o Hizkuntzekiko jarrerak 5. BALIABIDEAK o Arlo bakoitzeko ikasmaterialak o Espazioen banaketa eta hizkuntz tratuak o Informazio iturrien eta bestelako baliabideen hizkuntza	1. HIZKUNTZ ERABILERA o Arlo bakoitzeko harreman-hizkuntza o Irakaslearen hizkuntz ereduak eta hizkuntzarekiko jarrera o Irakaslearen arteko hizkuntz erabilera 2. METODOLOGIA ETA DIDAKTIKA o Komunikazio-egoera esanguratsuak o Taldekatze motak eta inzipideak 3. HEZITZAILEEN PRESTAKUNTZA o Hizkuntz hobekuntza o Jardueraren metodologiak o Hizkuntzekiko jarrerak 4. BALIABIDEAK o Gune eta zerbitzuak o Baliabideen hizkuntz tratuak	1. HIZKUNTZ ERABILERA o Gobernu, administrazio eta funtzionarioen hizkuntz erabilera eta tratuak o Langileen hizkuntz profila o Hizkuntzen tratuaren buruzko erabakiak biltzen dituzten dokumentuak 2. LANGILEEN PRESTAKUNTZA o Hizkuntz hobekuntza o Hizkuntzekiko jarrerak 3. BALIABIDEAK o Ekonomia- eta administrazio dokumentazioaren hizkuntz tratuak o IKT erabilien hizkuntz tratuak o Ikasitako espazioen hizkuntz tratuak	1. HIZKUNTZ ERABILERA o Familien hizkuntz tipologia o Familia barmoko hizkuntz erabilera o Ikastolen eta gurasoen arteko harremanak 2. GURASOEN PRESTAKUNTZA o Hizkuntz hobekuntza o Hizkuntzekiko jarrerak 3. BALIABIDEAK o Komunikazio baliabideak: aldizkariak eta abar	1. HIZKUNTZ ERABILERA o Harremanetarako hizkuntz inzipideak 2. ERABILERA EREMUEN SUSTAPENA o Harreman-sareak indartzea o Euskal kultur ekintzak bultzatzea o Euskarazko ekintzak bultzatzea	

Hizkuntzekiko esku-hartze eremuen deskripzio horrek aukera ematen digu Hizkuntza Proiektuaren garapenean egoera linguistikoaren diagnosi osoa, hizkuntza plangintza orekatua, koordinatua eta koherentea egitea; bai eta plangintza horren eraginaren jarraipena egiteko eta eragina ebaluatzeko ere. Sailkapen horri jarraituz diseinatu eta garatu da Haurtzaro Ikastolaren egoeraren diagnosis eta horretatik ondorioztatzen den lan-plangintza.

3.3. HIZKUNTZ PROIEKTUAREN EZAUGARRIAK

Halako marko integral batek eskatzen dituen baldintzak bete daitezela, ezaugarri hauek bete beharko ditu Hizkuntz Proiektuak:

- **Koherentzia.** Ikastola bakoitzak bere Hezkuntza Proiektuan definitutako izaera eta helburuekiko koherentzia izango du. Hezkuntza Proiektuak ikastolaren hezkuntzarekiko eta hizkuntzekiko xedea eta ikuspegia jasotzen dituen gero, Hizkuntz Proiektuan hartuko diren erabaki guztiak baldintzatzen ditu. Hezkuntza Proiektua izango da, beraz, edozein Hizkuntz Proiekturen iturburu.
- **Egokitasuna.** Norberaren testuinguru sozio-ekonomikolinguistiko eta kulturalari egokituriko hizkuntz heziketaren ibilbidea garatuko du ikastola bakoitzaren Hizkuntz Proiektuak.
- **Legezketasuna.** Ikastola kokaturik dagoen lurralde administratiboari (EAE, Nafarroa eta Iparraldea) dagokion Hezkuntza Sistemak zehazten duen hizkuntzekiko lege-markoa aintzat hartuko du Hizkuntz Proiektuak, betiere ikastolaren Hezkuntza Proiektuaren koherentzia zainduz.
- **Integrala eta parte-hartzailea.** Hizkuntz Proiektuak eragina du ikastola osatzen duen hezkuntza-komunitate osoan; komunitate hori osatzen dutenen partaidetza eta inplikazioaren arabera gauzatuko dira bertan formulatutako irizpideak. Bertan jasotako erabakiek hezkuntza-komunitateko kide guztiak konprometituko dituzte. Gainera, hizkuntz eragile dinamikoak izan behar dute ikastolako bizitzan Hizkuntz Proiektuan jasotzen diren printzipioek eta horietatik eratorritako ekimenek.

3.4. HIZKUNTZ PROIEKTUAREN KOKAPENA

Hizkuntz Proiektuaren zeregina da, hain zuzen ere, Hautzaro Ikastolaren Hezkuntza Proiektuan hizkuntzen trataerari buruz finkatzen diren printzipioak garatzea.

Halaber, Hizkuntz Proiektuan bildutako erabakiek eragin zuzena izango dute ikastolako Curriculum Proiektuan, bertan jasotzen baitira ikaskuntza-irakaskuntza bideratzeko irizpideak. Izan ere, hizkuntzei buruzko alderdiek garrantzi handia dute Curriculum Proiektuan, batetik hizkuntzak eduki garrantzitsua direlako, eta bestetik, are gehiago, hizkuntza ikaskuntza-irakaskuntza ororen tresna nagusia delako.

Aipaturiko hiru proiektu nagusiok, hortaz, etengabeko elkarreaginean ari dira, bata beste elikatzen, grafiko honetan irudikatzen den moduan:



4

Hizkuntz Proiektuaren ikuspegia eta helburuak

4.1. HIZKUNTZEKIKO HELBURU OROKORRAK ETA ZEHATZAK

Gure hizkuntza proiektuaren **helburu orokorrak** honakoak dira:

- Haurtzarok bere ikasleak **formazio euskaldunaz** hezi nahi ditu: euskara erabiliz eta ongi menderatuz.
- Ikastolak ardatzat euskara izanik **pertsona eleanitzak** formatu nahi ditu, beste hizkuntzen beharrezko ezagutza eta erabilera erdiestea bideratuz. Hots, bertako hizkuntza propioa (euskara) eta kontaktuko hizkuntzaz (gaztelania) gain, atzerriko hizkuntzan (frantsesa/ingeleza) nahikotasun maila lortu nahi du.
- Europako **beste hizkuntzen ezaguerak eta erabilerak** ikastolaren helburu linguistiko izan behar dute.
- Ikastola komunitate ezberdinez osatutako erakundea izanik **barne bizitza euskaraz** gauzatu nahi du mota guztietako harremanetan, eta aldi berean, txertatuta dagoen ingurunean euskararen normalizazio prozesuan eragile izan nahi du.
- Euskararen biziberritzea indartzeari dagokionez, Ikastolak **euskararen normalizazio-prozesuan eragile** izan nahi du txertatuta dagoen komunitatean. Hartara, bestelako gizarte eragileekin zein askotariko instituzioekin lankidetzen jarduteko borondatea du.

Helburu zehatzak berriz:

PEDAGOGIKOAK

- 1- Euskaraz eta gaztelaniaz ahozko zein idatzizko mezuak autonomiaz eta sormenez ulertu eta ekoitzi.
- 2- Euskal Herriko hizkuntza propioa ahalik eta eremu gehienetan erabiltzeko konpromisoa azaldu eta gure kultur ondarea kontserbatzen eta hobetzen lagundu.
- 3- Atzerriko hizkuntzan oinarritzko komunikazio esparruetan gertatzen diren ohiko egoeren eta ahozko eta idatzizko diskurtsoak ulertu eta ekoitzi.
- 4- Hizkuntza eskubidetzat onartu eta errespetuzko eta konpromisoazko jarrera agertu, diskriminazioak arbuiatuz.
- 5- Eleaniztasun egitasmoa bideratzeko bitartekoak aurreikusi eta esleitu.
- 6- Euskal curriculum integratua sortzeko urratsak egin.


INSTITUZIONALAK

- 1- Ikastolako gobernu eta funtzionamendu organoetan gauzatzen diren harremanetan euskararen nagusitasuna indartu eta bideratu.
- 2- Zerbitzuetako langileen hizkuntza profil egokiak bideratu.
- 3- Ikastetxeko giroa euskalduna izateko neurri egokiak hartu.
- 4- Ikastolako dokumentazioan (hezkuntza proiektua, barne araudia...) hartzen diren hizkuntza arautzeko erabakiak txertatu.
- 5- Ikasleen arteko harremanak euskaraz izan daitezen kontzientziatu eta ahalegindu.
- 6- Euskaldunak ez diren familietan euskararekiko errespetua eta ikasketa bultzatu.
- 7- Familiei euskara ikasteko eta erabiltzeko konpromisoa eskatu.
- 8- Familia eta ikastola arteko harremanetarako hizkuntz irizpideak ezarri.
- 9- Administrazio sailarekin harremanak euskaraz ahalik ea gehien bideratu.
- 10- Ikastolako eremu ezberdinen hizkuntza ereduak erabilera arautu.
- 11- Euskal kulturaren bultzadarako plangintza sortu eta urtetik urtera proposatutakoetan parte hartu.

4.2. HIZKUNTZEKIKO ERREFERENTZIAZKO LORPEN-MAILAK

Hautzaro Ikastolak bere egiten ditu Derrigorrezko Oinarritzko Hezkuntzaren bukaeran, legez hezkuntza-sistemak ezartzen dituen mailaz gain, Derrigorrezko eskolaldirako Euskal curriculumean (2006) finkatu diren hizkuntzekiko Portu beharreko konpetentzia-mailak, betiere Europako Erreferentzia Markoak (Europako Kontseilua, 2005) proposatzen duen mailaketa aintzat hartuz:

Ikastolan hezitako “euskaldun eleaniztunek” haien heziketa-prozesuaren bukaeran hizkuntzak maila jakin batean menperatzea lortu nahi da. Derrigorrezko Oinarrizko Hezkuntzaren bukaeran, legez hezkuntzasistemak ezartzen dituen mailez gain, *Derrigorrezko eskolaldirako euskal curriculumean* (2006) finkatu dira hizkuntzekiko lortu beharreko kompetentzia-mailak, betiere Europako Erreferentzia Markoak (Europako Kontseilua, 2005) proposatzen duen mailaketa aintzat hartuz:



HIZKUNTZAK	LORPEN-MAILAK
Euskara	B2
Gaztelania	B2
Ingelesa	B1
Frantsesa	A2

- **Euskara** zein **gaztelanian** erabiltzaile independentearen B2 maila lortzea da helburu; honela deskribatzen du Europako Erreferentzia Markoak (op.cit.):

“Gai da gai zehatzei nahiz abstraktuei buruz diharduten testu konplexuetako ideia nagusiak ulertzeko, baita testu teknikoak ere, betiere bere espezialitatearen arlokoak badira. Jatorrizko hitzunekin mintza daiteke, jariatasunez eta naturaltasunez, halako eran non ez solaskide batek ez besteak ez duten ahaleginik egin behar elkar ulertzeko. Testu argiak eta xeheak sor ditzake gai askori buruz, eta gai da, orobat, gai orokorrei buruzko ikuspegi jakin bat aldezteko, aukera bakoitzaren aldeko eta kontrako argudioak emanez”.

- **Ingelesean** nazioarteko “lingua franca” izaerari erantzunez, erabiltzaile independentearen B1 maila lortu nahi da:

“Gai da argi eta hizkuntza estandarrean idatzitako testuen puntu nagusiak ulertzeko, gai ezagunei buruzkoak badira, lanaren esparruan, ikasketen esparruan eta aisialdian. Badaki hizkuntza hori erabiltzen den lurraldeetan bidaiatzean sor daitezkeen egoera gehienetan moldatzen. Gai ezagun edo interes pertsonalekoei buruzko testu soilak eta koherenteak osa ditzake. Esperientzien, gertaeren, nahien eta asmoen berri emateko gai da, eta gai

da, orobat, bere iritziak labur-labur arrazoitzeko edo bere asmoak azaltzeko”.

- **Frantsesean** oinarrizko erabiltzailearen A2 maila lortu nahi da:

“Bereziki esanguratsuak dituen esperientzia-esparruekin loturiko esaldiak eta esapideak, eguneroko bizitzakoak, ulertzeko gai da (bere buruari eta familiari buruzko oinarrizko informazioa, erosketei, intereseko lekuei, lanbideei eta abarri buruzko informazioa). Badaki ataza soilak eta arruntak egiteko orduan komunikatzen, baldin eta ezagunak edo ohikoak dituen gaiei buruzko informazio-truke erraza eta zuzena bakarrik eskatzen badute. Badaki bere iraganaz eta inguruneaz deskribapen errazak egiten, baita bere berehalako beharrei buruzko deskribapenak egiten ere”.

5

Hizkuntz Proiektuaren oinarri teorikoak

Hautzaro Ikastolak, bere Hizkuntza Proiektua garatuko duten erabakiak hartzeko eta plangintza zehazteko orduan, Hezkuntza Proiektuan definituta dituen hezkuntzari eta hizkuntzari buruzko oinarrizko printzipioen eta irizpideen arabera jokatu nahi du.

5.1. HIZKUNTZA ETA KULTUR POLITIKAREN OINARRIAK

5.1.1. Eskolaren zeregina euskara indarberritzeko prozesuan

Ikastolaren xedea, bizitzako zeregin askotarikoetarako kalitatezko euskara irakasteaz gain, gizartean eragitea ere bada, eta baita euskararen sustatzaile izatea, hiztun euskaldunon komunitatea sendotzea, eta erabilera-eremuak irabaztea ere.

5.1.2. Hizkuntz eta kultur aniztasunari erantzuna: kultur integrazio barne-hartzailea

Gaur egungo aniztasunaren eta mugikortasunaren gizarteak erronka berriak ezartzen dizkio euskararen eta euskal kulturaren biziberritze-prozesuari. Desegokia litzateke prozesu hori kultur eta hizkuntza testuinguru zabal horretatik at planteatzea. Aitzitik, euskara eta euskal kultura gaur egungo gizartearen aniztasunean parte izanik, elkarbizitzarako ardatz bezala garatu nahi genuke.

Hizkuntz eta kultur aniztasunari erantzuna emateko garaian, Hautzaro Ikastolak *kultur integrazio barne-hartzailearen* hautua egin du.

Eskola barne-hartzaileak atek irekitzen dizkio hizkuntza eta kultur aniztasunari, aniztasunaren erronka era baikorrean ikusiz; Hautzaro Ikastolak uste du euskarak integratzeko tresna izan behar duela, eta ez baztertzaille. Modu horretan, euskara aukera berdintasuna lortzeko bidetzat hartzen du, euskararen hiztun eta erabiltzaile berriak irabazteko.

5.2. HEZKUNTZAREN IKUSPEGIA


Egungo gizartearen ezaugarriek inoiz ez bezalako erronka berriak ezartzen dizkiote hezkuntza-sistemari. Ikasleak informazioaren eta kultur aniztasunaren gizarteari erantzuteko prestatu beharrak birplanteaketa sakona eskatzen du hezkuntzaren xedeetan, curriculumean eta ikaskuntza-irakaskuntza metodoetan. Diagnostiko horretan eta horri dagokion erantzunetan, adostasun handia gertatu da hezkuntza-plangintza berrietan¹⁷. Ikastolek (beste gizarte-eragileekin batera) berrikuntza horren ardatzak bere egin dituzte, eta Derrigorrezko Eskolaldirako Euskal Curriculumean proposamen zehatza garatu dute.

Hautzaro Ikastolak proposamen hori onetsi du eta hezkuntza xede berria bere egin du: ikasleak dimentsio guztietan (gizabanakoa, gizartekidea eta izadi-kidea) eraginkortasunez jarduteko trebatzea.

Proposamen horren arabera, hezkuntzasistemaren xedea litzateke pertsonak dimentsio guztietan (gizabanakoa, gizartekidea eta izadikidea) eraginkortasunez *jarduteko* trebatzea. Horrela, eskolaren zeregin nagusia izango da gizartean partaidetza aktiboa edukitzeko eta bizitzako beharren aurrean era eraginkorrean ekiteko beharrezkoak diren *konpetentziak* garatzea.

Eskolak bilatzen duen pertsona **konpetentea**, egoera eta testuinguru zehatz batean eraginkortasunez erantzuteko gai dena da, eta horretarako beharrezkoak diren ezagutzak, trebetasunak eta jarrerak era bateratuan eta integratuan erabiltzen dituena. Xede horri begira jarritako hezkuntzak elkarreragin estuan dauden bost konpetentzia orokor izango ditu curriculumaren ardatz gisa: **pentsatzen eta ikasten ikasi; komunikatzen ikasi; norbera izaten ikasi; elkarrekin bizitzen ikasi; egiten eta ekiten ikasi**.

Perspektiba berri horrek lehen planora dakar hizkuntzaren trataera. Hain zuzen ere, hizkuntzak berebiziko eginkizuna du hezkuntzaren konpetentzia orokor guztiak lortzeko orduan, bera baita giza garapenerako tresna nagusia, eremu guztietan eta gure egiteko guztietan erabiltzen dugun bitartekoa (Elorza, 2004).



Horiek guztiak ikusita, baieztatu daiteke hizkuntz heziketak eta komunikazioaren heziketak, oro har, eskolaren zereginetan inoiz baino garrantzi handiagoa hartzen dutela. Azpimarratzekoa da, halaber, ikuspegi berri horren harira ahozkoitasunak eta bereziki elkarreraginerako ahozko diskurtsoak hartzen duen pisua. Bestalde, bizitzako egoerei eta beharrei erantzungo dieten hizkuntz konpetentzien garapen egokia ziurtatu ahal izateko, garbi dago egoera horiek ezin direla gela barrura mugatu, are gutxiago hizkuntzari dagokion arlora. Beraz, Hautzaro Ikastolak kontuan

hartzen ditu ikasleak bere inguruan bizi dituen askotariko hizkuntz esperientziak, eta guztiak era sistemikoan tratatu beharko ditu.

5.3. HIZKUNTZAREN ETA HIZKUNTZA-IRAKASKUNTZAREN IKUSPEGIA

5.3.1. Hizkuntzaren ikuspegia

Konpetentzien hezkuntza berri horri hizkuntzei buruzko berezko ikuspegia dagokio. Europako Erreferentzia Markoan konpetentzien diskurtsoari bete-betean egokitutako ikuspegia datorkigu: gizarte-ekintzara bideratutako ikuspegia. Honela definitzen da markoan:

Lan honetan erabili dugun ikuspegia, oro har, ekintzan oinarritzen da, gizarte-eragiletzat hartzen baititu hizkuntza bat ikasten diharduten erabiltzaile eta ikasleak; hau da, egoera jakin batzuetan, ingurune espezifiko eta jarduera-arlo jakin batean, zeregin jakin batzuk (ez soilik hizkuntzarekin lotuak) bete behar dituzten gizarteko kideatzat.

Hizketa-ekintzak hizkuntzaren jardueretan gauzatzen diren arren, gizartetestuinguru zabalago baten osagai dira, eta testuinguru horrek berak ematen die esanahi osoa. "Atazez" mintzo gara, jardueretan gizabanako batek edo gehiagok beren gaitasun espezifikoak emaitza jakin bat lortzeko era estrategikoan erabiltzen dituztela adierazteko. Ekintzara bideratutako ikuspegiak, beraz, ezagutzaren, emozioen eta borondatearen baliabideak ere kontuan hartzen ditu, eta baita gizabanakoak gizarte-eragile den aldetik aplikatzen dituen gaitasun espezifiko guztiak ere. (Europako Kontseilua, 2005, 29. or.).

Ikuspegi horrek marko integralago batean kokatzen du hizkuntzen trataera; izan ere, hizkuntza jarduera gizarte-testuinguru zabalago bati atxikia aztertzen du, beste hainbat zereginekin eta konpetentziekin hertsiki loturik. Hain zuzen ere, hizkuntza ekintzek erregulatzen dituzte giza-ekintza guztiak, eta munduaren eta pertsonen arteko harremanak antolatzen dituzte.

Ekintzara bideratutako hizkuntzaren perspektiba ikas-irakaskuntzaren prozesura ekartzeko garaian, bereziki J.P. Bronckart-en ikuspegi *sozio-diskurtsiboan* (Bronckart, 1997) eta hortik ondorioztatzen den *testu-pedagogian* dugu oinarria. Haren aburuz, pertsonak hizkuntza ekintzen bidez jarduten dute munduan, testuinguru eta egoera askotarikoetan, hainbat helburu lortu nahian. Hizkuntza ekintza horiek ahozko zein idatzizko testuen bidez gauzatzen dira. Testuak, beraz, komunikazio-unitate osoak dira, komunikazio-egoera bakoitzaren ezaugarrietara egokiturik, zentzua eta forma hartzen duten hizkuntz unitateak.

Horrenbestez, ikaslea egoera jakin batean eta helburu bat lortzeko hizkuntzaren bidez ekiten duen pertsonatzat hartuko dugu. Ekintza horren testuinguruan landuko dugu hizkuntza, bertan sortutako testuaren ezaugarri formalak zein eduki mailakoak landuz.

Testuen ugaritasuna amaigabea denez, testu-generoka multzokatu ditugu, gizarteko eremu desberdinetan betetzen duten funtzioaren arabera; eta genero horiek izango dira ikaskuntza-irakaskuntza prozesua antolatzeko baliatuko ditugunak.

Hala, Haurtzaro Ikastolak testu-generoen ulermen eta ekoizpenean ardaztutako metodologia hobetsi du.

5.3.2. Euskaran ardaztutako hezkuntza eleaniztuna

Haurtzaro Ikastolak honako hautuak eginak ditu, helburutzat dituen hizkuntzak garatzeko orduan:

- **Euskara** hartzen du eskolako komunikazio- eta ikasketa-hizkuntza nagusi gisa, eskola barruan ahalik eta komunikazio eremu gehien harentzat irabazi nahian.
- **Gaztelania**, gizartean duen lehentasuna aintzat hartuz, bigarren hizkuntza gisa hartzen du, eta bereziki ikasketa-munduarekin loturiko erabilera formalak indartzeari begira egingo da lana.
- **Ingelesa**, globalizazioaren gizartean hartu duen *lingua franca* papera ikusirik, hizkuntza hori lanerako edo ikasketak jarraitzeko testuinguruarekin lotuko dugu.
- **Frantsesa** mugaz bestaldeko komunitatearekin harremanetan jartzeko helburuarekin landuko da nagusiki, eta beraz, ikuspegi kultural eta funtzionalago batekin garatuko da.

5.3.3. Komunikatzen ikasi konpetentzia orokorra

Aurkeztutako ikuspegiari erantzunez, Haurtzaro Ikastolaren hizkuntzekiko xedea honakoa dugu: *Ikasleen komunikazio-konpetentziak garatzea, hizkuntzak bizitzako egoera eta behar guztietarako tresna eragingarri gisa erabil ditzaten.*

Horrenbestez, hizkuntzen ikas-irakaskuntza prozesua konpetentzia orokorren mailan jarriko dugu, **komunikatzen ikasi** konpetentziaren osagai nagusi modura. Hartara, ikastolako eremu guztiek partekatutako prozesua izango da, eremu bakoitzean sortzen diren era guztietako atazek berariazko testu-generoak (berezko hizkuntz ezaugarriekin) eta hizkuntz eskakizun bereziak izango baitituzte, gizarte-ekintza jakin horietan txertatuta bakarrik landu eta ikas daitezkeenak. Bestela esanda, ikastolaren komunikazio-testuinguruko eremu bakoitzak eta bertan partaide den hezkuntza komunitatearen kide bakoitzak (ikasle, profesional zein gurasok) egingo dio ekarpena ikaslearen komunikazio-konpetentzia orokorrari, eta guztietan eragin beharko dugu hura garatu ahal izateko.

Jarraian, eremu pedagogikoaren baitako azpi-eremuek komunikatzen ikasi konpetentziari egin beharreko ekarpenak azalduko dira.

5.3.3.1. Gela barruko eremuaren hizkuntz beharrak

Gela barruko esparru akademikoari dagokionez, hizkuntzaren garapen egokia izango da arrakasta akademikoaren giltzarria, hura baita ikaste-irakaste prozesu ororen tresna nagusia. Beraz, arlo guztietan nahitaezkoa izango da informazioaren ulermenarekin eta prozesatzearekin nahiz informazioaren egituratzearekin eta komunikatzearekin erlazionatutako gaitasun kognitibo-

linguistikoak garaturik edukitzea; baita ikasketa-eremuarekin loturiko informaziozko nahiz argudiozko testu-generoak menderatzea ere.

Ikuspegi hori areagotu egiten da konpetentzien hezkuntza-ereduari begira. Izan ere, ikasleek jakin behar dute informazioa bilatzen, helburua kontuan hartuta egokia dena hautatzen, informazioa prozesatzen eta, iritzi propioa garatuz, haren balioespen kritikoa eta erabilera sortzailea egiten.

Era berean, ezagutzaren eraikuntza sozialak ideiak eta ezagutzak besteenekin alderatzea eta besteekin batera garatzea eskatzen du. Ikasleek besteekin elkarlana egin beharko dute ezagutza berria eraikitzeko, norberaren ideiak eta ezagutzak azalduz, besteenekin erkatuz, eta argudiatuz.

Hautzaro Ikastolan prozesu kognitibo horiek guztiak ahozko nahiz idatzizko hizkuntzaren bidez gauzatzen dira batik bat. Konpetentzia kognitibo-linguistiko horiek oinarrizkoak dira ikaskuntzaren eremuan arrakasta izateko eta pentsamenduaren nahiz ezagutzaren garapenerako. Hartara, jakintza-arlo guztien bidez garatu behar dira, bakoitzak berezko prozedurak nahiz testu-generoak baititu (laborategiko esperientzia baten deskribapena, matematikako buruketa baten formulazioa, narrazio historikoa, gertaera sozialen edo fisikoen azalpena eta abar.).

Ondorioz, hizkuntza era kontzientean irakatsi behar dute irakasgai guztietako irakasleek. Eta horrenbestez, ebaluazioan kontuan hartu beharreko atala izango da arloari dagokion hizkuntz ekintzen kalitatearen eta eraginkortasunaren balioespena.

5.3.3.2. Hizkuntza arloaren trataera

Esan bezala, Hautzaro Ikastolaren hizkuntza arloaren helburu nagusia, bizitzako zeregin askotarikoetan ekiteko ikaslearen komunikazio-konpetentzia garatzea da. Helburu horri erantzunez, Hizkuntzak eta Literatura ikas arloaren curriculumaren oinarria, hizkuntzaren ikuspegi diskurtsiboan datza; bestela esanda, hizkuntza erabiltzen ikastea izango da konpetentzien definizioaren zein edukien hautaketaren oinarria.

• *Hizkuntzen ikuspegi bateratua: curriculum integratua*

Arestian aipatu bezala, euskaran ardaztutako eleaniztasuna garatu nahi bada, ezinbestekoa izango da hizkuntzen ikuspegi integratzailea eta horrekin batera doan curriculum bateratua gauzatzea.

Alde horretatik, curriculum proposamen bakar batean bildu dugu hizkuntza guztien ikaskuntza-irakaskuntza, ikasi beharreko hizkuntza guztiak barne-hartzen dituen curriculum integratuaren diseinuaren bidez. Horrela, ikaskuntzaren osagarritasuna ahalbidetzen da, baita hizkuntza bakoitzak dituen berariazko hizkuntza alderdiak alderatzeko lana eta hizkuntza batean ikasitakoa beste hizkuntza batzuetan aplikatzea ere.

Ondorioz, arloaren konpetentzia nagusien eta blokeen definizioa eta oinarrizko edukiak aukeratzeko irizpideak berberak izango dira curriculumaren

baitako hizkuntza guztientzat; horrela, horien garapen osagarria bermatuko da. Berariazko konpetentziak definitzean eta, bereziki, horiek ebaluazio-irizpideen bidez definitzen direnean, hizkuntza bakoitzaren lorpen-maila zehatuko da.



• Metodologiaren ikuspegia

Arestian esan dugun moduan, Hizkuntzak eta Literatura arloaren curriculumak hezkuntza konpetentzia orokorren arabera diseinatzeak ikuspegi diskurtsiboa hartzea eskatzen du.

Ikuspegi horren arabera, hitz egitea eta idaztea hauxe da: komunikazio- testuinguruaren baitan, helburu batzuk lortzera bideratzen diren testuak eraikitzea. Horrek zuzeneko eragina du metodologia-erreferentzia jakin batzuk aukeratzeko; hain zuzen ere, ezaugarri hauek oinarritzeko dira:

- Ikasleentzat esanguratsuak diren komunikazio-proiektuek bideratutako ikaskuntza-prozesua.
- Testua komunikazio-unitatea da. Testu-genero bakoitzak berariazko ezaugarriak ditu, beraz, bere ulermen eta ekoizpenerako ikaskuntza espezifikoak eskatzen ditu.
- Ikaskuntza sekuentzia didaktikoetan egituratzea, jarduerak komunikazio-lan zehatz bat lortzera bideratutako helburu didaktiko batzuen inguruan antolatuz eta artikulatuz.
- Prozedurak eta goi mailako estrategia kognitiboen garapena nagusitzen dira; hizkuntz ezagutza lortzeaz eta ezagutzak aplikatzeaz gain, hitzekin gauzak egiten jakitea da helburu nagusia.

- Ezagutza instrumentala eta formala prozesu bakar batean barneratzea. Gramatika-hausnarketaren abiapuntua da landuko den testua; ezin dira bereizi komunikazio-ekintzaren helburua eta testuingurua, adierazi beharreko edukia eta horren arabera erabili beharreko hitzak eta moduak.
- Ikasleen artean eta irakasleen eta ikasleen artean elkarreragina indartzea, ikasgela komunikazio-testuinguru erreal bihurtu dadin, eta bertan lankidetzazko ikaskuntza indartu dadin.

• ***Ikasmaterialak***

Ikasmateriala da irakaskuntza-ikaskuntza prozesuari laguntzeko asmoz sortutako baliabide oro eta horiek hautatzerakoan ikuspegi komunez kasu egingo diegu. Beraz, edozein euskarri erabili behar dela, gure proiektuarekin (idatzitako irizpide eta metodologiarekin) bat datorrena aukeratuko dugu.

Testuliburuak dagokienez, irizpide idatzirik gabeko erabakia hartu zen: Ikastolen Elkartek sortutako materiala maneiatzea. Metodologia aurrerakoienaz baliatuz, sortutako tresnak etapaz etapa txertatu dira.

• ***Ebaluazioaren ikuspegia***

Ikusi dugun moduan, komunikazio-kompetentziaren garapena xede duen hizkuntzen ikaskuntza-irakaskuntzak helburuen eta edukien trataeran aldaketa sakonak eta hautu metodologiko jakinak eskatzen ditu. Ebaluazioa litzateke eraldaketa kate horren funtsezko begia; azken finean, bertan hartutako erabakiek atzerakako eragin handia dute, “zer ebaluatu, hura irakatsi” esaera ezagunak dioten moduan. Hala, ebaluatze moduek eta erabilitako irizpideek markatzen dute, ezinbestean, curriculumaren garapen osoa.

Horrenbestean, ezagutzen ebaluaziotik kompetentzien ebaluaziora doan bidea egitea funtsezkoa izango da, hizkuntzen irakaskuntza-ereduaren eraldaketa arrakastaz egin ahal izateko. Ebaluazioaren funtzioak, formatua, partaideak, edukiak, neurketa adierazleak... elementu guztietan sortu da berrikuntza esanguratsuak egiteko beharra (hizkuntzen ebaluazioan zein beste edozein arlotako ebaluazioan).

Honako ezaugarriak bete behar ditu proposatutako ikuspegiari erantzun dion ebaluazioak:

- **Hezitzailea:** heziketa prozesuaren muinean kokatzen dena, eta ez azken muturrean soilik.
- **Integrala:** kompetentzia komunikatiboaren osagai guztiak kontuan hartuko dituen.
- **Kontestualizatua:** hizkuntza giza ekintza jakin baten komunikazio-testuinguruan txertatuta aztertuko duena, eta ez elementu formal abstraktu gisa.
- **Testuala:** hausnarketa-unitate gisa, giza ekintza horren baitan sorturiko testua izango duena.
- **Anitza:** osagai eta egoera bakoitzeko ebaluazio-une eta -mota egokiena erabiliko duena.

- **Prozesuala:** apendizaien erregulatzaile-funtzioan oinarritutakoa.
- **Partekatua:** elkarrekintza ardatz izanik, ikasleari partaidetza eskainiko diona.

5.3.3.3. Gelaz kanpoko eremuaren ekarpena

Hautzaro ikastolak ikasleen bizitza-esparru guztietarako baliagarria den hizkuntza garatzen laguntzeko ardura hartu du, eta beraz, ezin du hizkuntzaren arloan egindako lanera mugatu, ez eta gela barruan beste arloetan garatu daitekeen eremu akademikora ere. Horregatik, garrantzi berezia eskaintzen dio gelaz kanpoko eremuari (jolas-garaiak, eskolaz kanpoko ekintzak, ibilaldiak...).

Helburua, ikastola euskararen bilgune bihurtzea da, ikasleek gelatik atera orduko beraien artean euskaraz egiten jarrai dezaten segurtatzeko edo bultzatzeko; horretarako, egoera interaktiboak ugaritzeko aukerak eskaintzen dira, euskara haur eta gazteek gustuko dituzten jardurekin lotuz.

5.4. HIZKUNTZ DIBERTSITATEARI ETA KALITATEARI BEGIRA, ERREGISTROEN TRATAERA

Eskolako euskararen trataera gaiaz ari garenean, gure kezkak zein erregistro desberdin landu behar diren eskolan argitzea, eta erregistro formalean eta informalean zein hizkuntza eredu edo aldaera erabili erabakitzea dira.

Zenbait orientabide erregistroen trataeraz liburuan jasotzen diren dokumentuen artean badira hainbat ondorio edo baieztapen behin eta berriz aipatzen direnak. Hona horiek:

- Ikasleek argi, jariokortasunez eta eraginkor hitz egiten ikasi behar dute, egoerari dagokion erregistro egokiarekin.
- Eskolako lana inguruaren ezaugarrietatik abiatu behar da, eta hizkuntzari dagokionez, eskola non dagoen, hango ezaugarri soziolinguistikoak aintzat hartu behar ditu.
- Eskolan hurbilekotik hasi behar da (beraz, hizkuntza kontuetan euskalkitik, inguru euskalkidunetan, baina besteetan ez, halabeharrez behintzat) eta gero pausoka-pausoka urrutikora igaro.
- Hizkuntzaren balio funtzionalari garrantzia eman behar zaio.
- Ikasleak lehenagotik zer dakien kontuan hartu behar da nahi eta nahi ez, eta haren hizkera errespetatu behar da.
- Eskolan ahozko hizkera landu behar da.
- Lagunarteko hizkera eta egoera informaleko hizkera euskalkian edo azpieuskalkian oinarritzen da. Hizkera landua, berriz, euskara batuan edo euskalkiaren erabilera landuan.
- Ahozko kodean malgu jokatzeari proposatzen da. Kode idatzian, berriz, erabilera landua batasunerako arauak errespetatuz.

Haurtzaro ikastola, zenbait urtetan, hizkuntza erregistroen trataera aztertzen aritu da arestian aipatu baieztapenetan oinarrituta; eta proposatzen den erregistro ez-formalak eta formalak gauzatzeko E ereduaren aldeko hautua egin du:

		% eusk.	
HAUR HEZKUNTZA	0-3 urte	Inform.	Form.
		Eusk.	(1)
	3-6 urte	Inform.	Form.
		Eusk.	(2)
LEHEN HEZKUNTZA	6-8 urte	Inform.	Form.
		Eusk.	Landua
	8-10 urte	Inform.	Form.
		Eusk.	Landua
	10-12 urte	Inform.	Form.
		Eusk.	Landua
DBH	12-14 urte	Inform.	Form.
		Eusk.	Landua
	14-16 urte	Inform.	Form.
		Eusk.	Batua

(1) Esparru ez-formala da, ludikoa, afektiboa eta, beraz, eredu familiarra erabiliko da.

(2) Ziklo honetan aurrera egin ahala, ez-formaletik formalera igarotzen hasiko gara eta, beraz, eredu familiarretik ez-familiarra, tokiko hizkeratik eredu landura.

6

Hizkuntz Proiektuaren prestakuntza- irizpideak

Hezkuntza komunitate osoan hainbat behar eta premia azaleratzen dira eta horiei erantzuteko Haurtzaro ikastolak zenbait prestakuntza-irizpide zehaztu ditu.

6.1. PRESTAKUNTZAREN ESPARRUAK

Haurtzaro ikastolako Hizkuntz Proiektuaren baitako prestakuntzak ikastolen hizkuntz beharrei egokitutako tresna izan behar du, eta aintzat hartu behar ditu bai hezkuntza-komunitatearen partaide eta komunikazio-eremu guztiak, bai Hizkuntz Proiektua aurrera eramateko beharrezko esparru guztiak. Horretarako, Ikastoletako eskola-giroan hizkuntzen erabileran eragiten duten eta hobetu beharrekoak diren alderdiak lantzea du helburu, bakoitza bere erabilera-esparruaren arabera. Alderdi horiek, besteak beste, honakoak dira: hizkuntz elkarrekintza (mintza-jardun aktiboa indartzea), gaiak eta hizkera-moduak, profesionalen eta eskola-lagunen euskara-maila, eta gizartearen eragin-moldea (ikaslearen eskolaz kanpoko jardun-esparruetako hizkuntz ohiturak, jokabideak eta jarrerak). Horretarako, lau esparru nagusi hauetan eragitea aurreikusten dugu:

- Hizkuntz prestakuntza
- Metodologia prestakuntza
- Hizkuntz jarreraren inguruko prestakuntza
- Hizkuntz Proiektua dinamizatzeko prestakuntza

6.2. PRESTAKUNTZAREN ARDATZ NAGUSIAK

Hizkuntzekin loturiko prestakuntzak aintzat hartu behar ditu ikastolaren eremu guztiak eta hezkuntza-komunitatearen partaide guztiak. Hartara, prestakuntzaren ardatz nagusiak deskribatuko ditugu jarraian.

6.2. 1. Profesionalak

Profesionalena da eremurik zabalena, eramu pedagogikoan gela barruko eta gelaz kanpoko jarduerari ez ezik, eremu instituzionalari ere begira jarritz gero. Horregatik, oso garrantzitsua da profesionalen prestakuntza.

Garrantzia horretaz jabeturik, Haurtzaro ikastolako profesionalentzako prestakuntza bi esparruri begira egituratzen da: bata, hiztun gisa bere hizkuntza gaitasunaren hobekuntza; eta

bestea, ikasleen aurrean askotariko ekintza komunikatiboetan erabakigarri suertatzen diren eredu-emaile eta diskurtso bideratzaile gisa.

6.2.2. Gurasoak

Ikaslearen inguruko harreman-sareetatik (gurasoak, lagunak, auzoa, aisialdi-ekintzako lagun taldeak, hizkuntza gutxitua sustatzearen aldeko elkarteak eta abar), familia da ondorio nabarmenenak ezartzen dituen eragilea hizkuntzaren transmisioan eta eskurapenean.

Hala bada, seme-alabek euskara ikasteko ardura handitu egin da azken urteotan. Gero eta guraso euskaldun gehiago ditugu eskolari esker. Familia bidez euskara geroratzeko aukera gero eta handiagoa da. Euskarekiko aitormen sozial handiagoa dago gure gizartean eta, beraz, gurasoek bere egin dute euskara ondorengoei transmititzearen ardura. Hala eta guztiz ere, asko dago egiteko arlo honetan ere euskararen erabilera areagotzeko.

Eginkizun horietan Haurtzaro ikastolak, AEK euskaltegiarekin nahiz Udalaren laguntzarekin, gurasoen bidelagun izatea du helburu: euskara erabiltzera motibatuz, ikastaroak eskainiz...

6.2.3. Ikasleak

Ikasleak dira, azken batean, Haurtzaro ikastolan hartzen diren erabaki pedagogiko guztien jomuga; izan ere, erabaki pedagogiko horien ondorioz ikaskuntza-irakaskuntzen emaitzak hobetzea bilatzen dugu. Hala, bada, ikasleek komunikatzen ikasi konpetentzia egokia lortzea da dokumentu honetan jorratzen diren irizpide guztien helburua; beraz, erabaki guztien jomuga ikasleak badira eta ikasleen hizkuntz garapena ohiko hezkuntza-prozesuak bideratu behar badu — hizkuntza jarrerak barne—, ez dirudi zentzuzkoa ikasleentzako berariazko hizkuntza prestakuntza bat zehaztu behar izatea.

Alabaina, batetik, gizartearen eragin-moldea eta testuinguru soziolinguistikoa zein diren ikusita eta, bestetik, ikastolen eguneroko praktikek erakusten digutenari erreparatuz gero, ezin uka bestelako ekintzabide osagarriak ere beharrezko direnik. Hartara, Haurtzaro ikastolan hizkuntza lantzea eta erabiltzea helburu duten ikastaro eta saio osagarriak antolatzen dira, besteak beste:

— **Hizkuntz behar berezien kasuan.** Bereziki eskolatze berantiarren ondorioz hizkuntz gaitasuna indartzearen lagungarri suerta daitezkeen ekintzak (ikastaro bereziak, mintza-saioak...).

— **Euskararen erabilera eta ukipen-orduak gehitzearen.** Eskola-orduez kanpo, komunikazioarekin zuzenean loturiko ekintza bereziak, ikasleek euskararekin ukipen-ordu gehiago izan ditzaten.

7

Hizkuntz Plangintza

Hautzaro Ikastolak, bere helburu orokorretan hautatutako eleaniztasun-eredua aurrera eramateko, hizkuntza bakoitzak ikastola barruan duen funtzioa eta hartzen dituen eremuak definitu eta zehaztu ditu, ondorengo lerroetan aipatzen den eran.

7.1. HIZKUNTZA BAKOITZAREN LEKUA ETA FUNTZIOA IKASTOLAKO EREMUETAN

Hautzaro Ikastolak egina duen plangintzaren arabera, hizkuntza bakoitzak, ikastola barruan, izan beharko dituen erabilera-eremua eta funtzioa honako hauek dira:

EREMUAK		HIZKUNTZAK			
		EUSKARA	GAZTELANIA	INGELESA	FRANTSESA
PEDAGOGIKOA	GELA BARRUKOA	X	X	X	X
	GELAZ KANPOKOA	X			X
INSTITUZIONALA	ERAKETA ETA BARNE KOMUNIKAZIOA	X	X		
	KANPO HARREMANAK	X	X		X

Hautzaro Ikastolaren helburua *kalitatezko hezkuntza euskalduna* denez gero, **euskara** da ikastolako hizkuntza nagusia. Hizkuntza nagusi modura lehenesten dugu ikastola garelako, gure hizkuntza delako, euskararen ardaztutako eleaniztasunaren hautua egiten dugulako eta euskaraz bizi nahi dugulako.

Gaztelaniak gela barruko esparrua hartzen du nagusiki, eta beraz, gela barruko interakziorako dagokion hizkuntza izango da.

Horretaz gain, gaztelaniak eremu instituzionalean ere presentzia badu, eta eraketa eta barne-komunikazioa nahiz kanpo-harremanak gaztelaniaz izango dira, euskaraz egiteko aukerarik ez dagoenean.

Ingelesak gela barruko esparrua hartzen du, 4 urtetik 16 urte bitarteko ikas-mailetan, eta irakasleen eta ikasleen harremanak ingelesez izango dira.

Frantsesa gela barruko hautazko irakasgaia da DBHn eta irakasleen eta ikasleen arteko harreman-hizkuntza frantsesa izango da. Halaber, hizkuntza hori indartzeko asmoz, atzerriko eskolekin elkartrukeak egiten dira eta horretarako ezinbestekoa da gelaz kanpoko eremuan eta kanpo-harremanetan frantsesez aritzea.

7.2. ESKOLATZE GOIZTIARRA ETA BERANTIARRA

HH etapan

Azken urte hauetan hizkuntza jatorri desberdineko ikasleak murgiltze plana jarraituz elkartzen dira gela arruntetan. Erdaldunen hizkuntza beharrei erantzuteko metodologia irizpide eta baliabide didaktikoak gela barneko trataeran eskaintzen dira gure ikastolan.

Udal Partzuergo Ikastolan, D ereduko zentroa izanik, gutxi izaten dira jatorriz huts-hutsik gaztelania hizkuntza duten haurrak, hau da, euskararekin inongo kontakturik izan gabekoak ikasleak. Horrela, Haurtzaro Ikastolan, ikasle horiek kopuru berdinean banatzen dira D ereduko geletan, eta batez beste 3-4 ikasle izaten dira.

Murgiltze prozesu honetan progresiboki jokutzen da. Modu honetan, ikaslearen adina eta behar afektibo-emozionalak kontuan harturik, egokitze prozesuan, baita ikasle bakoitzaren beharren arabera, irakaslea ikaslearen jatorrizko hizkuntzan mintzatzen da. Progresiboki, tutorearen zein mailako irakasleen euskararen erabilera handitzen joaten da ikasturte bukaeran euskara hutsean mintzatzera pasatuz. Normalean, HH-ko etapa bukaerako ikasleek euskarazko ezagutza eta erabilera egokia lortzen dute. Beraz, orain arte, HHn ez da errefortzu linguistikoko saiorik egin.

LH eta DBH etapetan

Talde euskaldunetan murgiltzen dira hizkuntza jatorri erdalduneko ikasleak. Eskolatzeko hasierako egunetan, eta kasuan kasu, irakasleak ikaslearen jatorrizko hizkuntzan mintzatzen dira; gero, poliki-poliki, euskararen erabilera handitzen joaten da.

Ikaslearen egoerak horrela eskatzen duenean, errefortzu saioak eskaintzen dira euskara arloan, Udala eta herriko euskaltegiarekin lankidetzan. Errefortzu saio horiez tutorea ez den irakasle bat arduratzen da, eta, batez besteko, astean 4 ordu eskaintzen ditu. Normalean,

integrazio prozesu horretan ikasleek euskara eta euskal kulturen murgiltzen badira ere, kontuan hartzen dugu ikaslearen jatorrizko kultura eta, ahal dugun neurrian, kultura horretara hurbiltzen saiatzen gara.

Aniztasunaren gaiak duen garrantzia ikusirik, eta etorkinen presentzia areagotzen ari delako, aurrera begira murgiltze planari buruz eta hizkuntzaren egokitzeari buruz hitz egin eta erabakiak hartu beharko dira. Plangintza eratu beharko dugu.

7.3. GELA BARRUKO HIZKUNTZAK

Gela barruko eremuari dagokionez, Haurtzaro Ikastolak hizkuntza bakoitzari eskaintzen dion ordutegia eta hizkuntza bakoitzaren irakaskuntzarako hasierako adina azaltzen da taula honetan:

Maila		ADINA	EUSKARAZ	GAZTELANIAZ	INGELESEZ	FRANTSESEZ
Haur Hezkuntza	1	3-4	X			
	2	4-5	X		X (2 ordu)	
	3	5-6	X		X (2 ordu)	
Lehen Hezkuntza	1	6-7	X (5 ordu)		X (2 ordu)	
	2	7-8	X (5 ordu)	X (2 ordu)	X (2 ordu)	
	3	8-9	X (4 ordu)	X (3,5 ordu)	X (3 ordu)	
	4	9-10	X (4 ordu)	X (4 ordu)	X (3 ordu)	
	5	10-11	X (4 ordu)	X (4 ordu)	X (3 ordu)	
	6	11-12	X (4 ordu)	X (4 ordu)	X (3 ordu)	
DBH	1	12-13	X (4 ordu)	X (4 ordu)	X (4 ordu)	X (2 ordu)
	2	13-14	X (3 ordu)	X (3 ordu)	X (4 ordu)	X (2 ordu)
	3	14-15	X (4 ordu)	X (4 ordu)	X (5 ordu)	X (2 ordu)
	4	15-16	X (4 ordu)	X (4 ordu)	X (5 ordu)	X (2 ordu)
HIZKUNTZA BAKOITZAK DUEN DENBORA			HH: %95 LH: %82 DBH: %68	HH: %0 LH: %8 DBH: %12	HH: %5 LH: %10 DBH: %14	HH: %0 LH: %0 DBH: %6

Euskara eremu guztiak besarkatzen dituen tresna gisa integratzen da, hasierako prozesuan era globalizatuan, eta ondoren arlo izaera ere hartzen du.

Gaztelaniaren kasuan, eremu oso euskaldunean kokatuz, LH 2. mailan hasten da haren ikasgai trataera, ingurunean jasotako ezagutza informalean oinarritutako erabilera formal eta akademikoetan zentratuz.

Ingelesaren kasuan, sarrera goiztiarraren hautua egin du Haurtzaro Ikastolak eta horretarako, Ikastolen Elkarteko Eleanitz-English proiektuan oinarritzen da: ikasleak 4 urterekin hasten dira ingelesa lantzen, DBH bukaera arte. Gainera DBHko 2. zikloan Gizarte Zientziak irakasgaia (3 ordu) zuzenean ingelesez lantzen dute, ingeles arloarekin koordinatuz.

Laugarren hizkuntza litzateke **frantsesa**, DBHn hautazko moduan eskaintzen da eta helburua hizkuntzari lehen hurbilpena egitea litzateke.

7.4. GELAZ KANPOKO EREMUEN HIZKUNTZEN BANAKETA

Eremu honen barruan xede pedagogikoak dituzten gelaz kanpoko jarduerak biltzen dira, irakasle, hezitzaile nahiz begiraleen bidez bideratzen direnak. Esparru hori didaktikoa denez gero, planifikatu eta antolatu beharreko eremua da eta Hautzaro Ikastolak honela finkatu du:

GELAZ KANPOKOA	HIZKUNTZAK			
	EUSKARA	GAZTELANIA	INGELESA	FRANTSESA
JOLASALDIK	X			
JANTOKIA	X			
GARRAIOA	X			
SARRERA-IRTEERAK	X	X		
ESKOLAZ KANPOKO EKINTZAK (ikastola eragile denean)	X			X
IRTEERAK, EGONALDIK ETA KANPALDIK	X			X

Gelaz kanpoko eremuan hizkuntza nagusia **euskara** da. Esparru ez-curricularrak euskararen erabileran garrantzi izugarria du eta ikasleek euskara ikasteaz gain, erabiltzea nahi badugu, esparru honetan euskarak izan behar du hizkuntza nagusia. Horrexegatik, ikasleei euskara erabiltzeko ahalik eta aukera gehien eskainiko dizkiegu: jolasaldietan euskara sustatzeko jarduerak antolatuko dira, ikastolak antolatutako eskolaz kanpoko ekintza guztiak euskaraz dira...

Eremu honetan irakasleen, jantoki nahiz garraioetako begiraleen eta ikasleen arteko harreman hizkuntza euskara izango da. Bereziki, komunikazio egoera informalak izan ohi dira eta lagunarteko hizkera nagusitzen da. Beraz, eremu honetan lagunarteko hizkera lantzeaz gain, euskararen erabilera indartzeko jarduerak bideratuko dira.

Sarrera-irteeretan gurasoak euskaraz aritzen dira nagusiki, baina **gaztelaniaz** aritzeko joera ere badu zenbaitek. Horregatik, gurasoen euskararen erabileran eragiteko erabilera joerak behatu eta kanpainak egingo dira.

Eskolaz kanpoko ekintzak nahiz irteerak, egonaldiak edota kanpaldiak euskararen erabilera sustatzeko izateaz gain, **frantsesaren** erabilera indartzeko ere erabiliko dira. Horretarako, bretoiekin elkartrukeak egingo dira eta zenbait egunetarako irteerak antolatuko dira.

7.5. EREMU INSTITUZIONALEAN HIZKUNTZEN BANAKETA

Hautzaro Ikastolak hizkuntzen erabilerari dagokionez, ondorengo erabakiak hartu ditu eremu instituzionaleko:

EREMU INSTITUZIONALA		HIZKUNTZAK				
		EUSKARA	GAZTELANIA	INGELES	FRANTSESA	BESTE
ERAKETA ETA BARNE-KOMUNIKAZIOA	GOBERNU-, ADMINISTRAZIO- ETA FUNTZIONAMENDU-ORGANOEN HIZKUNTZA	X	X			
	LANGILEEN HIZKUNTZ PROFILA	X	X	X	X	
	HIZKUNTZEN TRATAERARI BURUZKO ERABAKIAK BILTZEN DITUZTEN DOKUMENTUAK	X	X			
	LANGILEEN HIZKUNTZ PRESTAKUNTZA	X	X	X	X	
	EKONOMIA- ETA ADMINISTRAZIO-DOKUMENTAZIOAREN HIZKUNTZ TRATAERA	X				
	IKT EUSKARRIEN HIZKUNTZ TRATAERA	X				
	IKASTOLAKO ESPAZIOEN HIZKUNTZ TRATAERA	X	X	X	X	
	FAMILIA BARRUKO HIZKUNTZA	X	X	X	X	X
	IKASTOLAREN ETA GURASOEN ARTEKO HARREMANAK	X	X			
KANPO HARREMANAK	GURASOEN HIZKUNTZA PRESTAKUNTZA	X				
	BESTE IKASTETXEEKIKO HARREMANAK	X	X		X	
	GIZARTE-ELKARTEEKIKO HARREMANAK	X	X			
	UDAL ETA HERRI ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK	X				
	HORNITZAILEEKIKO HARREMANAK	X	X			

7.5.1. Gobernu-, administrazio- eta funtzionamendu-organoen hizkuntza erabilera

Ikastolako gobernu, administrazio eta funtzionamendu organo guztien harreman hizkuntza euskara da, ahoz eta idatziz (ik. eranskinak: *Hizkuntza trataera* eta *Hautzaro Ikastolako bileretan hizkuntza trataera*).

- **Batzar Nagusia.** Batzar Nagusietan idatzizko informazioa interesa duten gurasoei, aldezturik helaraziko zaie: guraso euskaldunei euskaraz eta gaztelaniadun gurasoei elebitan.

Batzar Nagusiko azalpena euskara hutsean egingo da, batzarrera gerturatutako guztiak euskaldunak direnean. Euskarazko azalpena ulertzen ez duenik badago, ideia nagusien laburpena egingo da gaztelaniaz, edo aldi bereko itzultzaileen bidez bermatuko da gaztelaniazko azalpena.

Elkarriketak, oro har, euskaraz gauzatuko dira. Euskara ulertzen ez duen baten bat badago, gaztelaniazko laburpena egingo zaio. Norbaitek gaztelaniaz galdetzen badu, lehenengo euskaraz eta ondoren gaztelaniaz erantzuten zaio.

- **Kontseilu Errektorea.** Ikastetxeko Kontseilu Errektoreko bilerak euskara hutsean izaten dira, eta gurasoak izendatzeko garaian, baldintza hau aurrez adierazten da.
- **Hezkuntza Batzordea.** Hezkuntza Batzordea euskara hutsean izaten dira, eta gurasoak izendatzeko garaian, baldintza hau aurrez adierazten da.
- Ikastetxeko gainerako zenbait bileretan (guraso eskolak...), guraso guztiak biltzen direnez, bilera elebiduna egiten da; baina, gaztelaniaz, laburpenak bakarrik egiten dira edota, aldi bereko itzulpena erabiltzen dira.

7.5.2. Langileen hizkuntz profila

Hautzaro ikastolako irakasleei nahiz bestelako langileei ondorengo hizkuntza profila eskatuko zaie (ik. *Hautzaro ikastolako langileak kontratatzeeko protokoloa*):

- Zuzendaria eta irakasleak: Europako Erreferentzia Markoak proposatzen duen C1 maila euskaraz (EGA edo baliokidea).
- Hizkuntzetako irakasleak: euskarazko C1 mailaz gain, dagokion hizkuntzako C1 maila.
- Irakasle ez diren pertsonal teniko, administratibo eta kualifikatuen postuak betetzeko euskara derrigorrez bete beharreko baldintza da, eta ondorioz, ez da baremoan baloratzen.
- Irakasle ez diren kualifikatu gabeko postuetarako ahozko euskara ezagutzea bakarrik eskatuko da eta hizkuntza honetan alfabetatua egotea ere, baloratuko da.

7.5.3. Hizkuntzen trataerari buruzko erabakiak biltzen dituzten dokumentuak

Hizkuntzen trataerari buruzko erabakiak biltzen dituzten dokumentuak euskaraz idazten dira. Baina dokumentu horien informazioa gurasoen interesekoa izan daitekeenez, gaztelaniako bertsioa ere idatziko da.

7.5.4. Langileen hizkuntz prestakuntza

Ikastetxeko irakasleen eta gainontzeko langileen euskara beharrak aztertuko dira eta honen arabera hizkuntza prestakuntza bideratuko da. Helburua irakasle nahiz langileek euskara ona erabiltzea eta irakastea izango da.

Gainerako prestakuntza euskaraz izango da, beti ere, ahal den neurrian; izan ere, gaztelaniako, frantseseko eta ingeleseko formazio saioak dagokion hizkuntzan izango dira.

7.5.5. Ekonomia- eta administrazio-dokumentazioaren hizkuntz trataera

Hautzaro ikastolako ekonomia- eta administrazio-dokumentuak euskaraz izango dira.

7.5.6. IKT euskarrien hizkuntza erabilera

Hautzaro ikastolako IKT euskarriak euskaraz izango dira ahal den neurrian. Eta horretarako, orain arte egin den itzulpena egiten jarraituko da.

Hala eta guztiz ere, IKT euskarriak gaztelaniaren, ingelesaren... zerbitzura erabiltzen badira, hizkuntza horretan izango dira.

7.5.7. Ikastolako espazioen hizkuntza trataera

Hautzaro ikastolako hizkuntza ingurunea (hizkuntza paisaia) euskalduna da: oholetan eta hormetan informazioa (posterrak...) euskaraz egongo dira.

Ikasleen gela arrunteko hizkuntza paisaia nagusia ere euskaraz izango da. Gaztelania, ingelesa edota frantseseko saioak gela horretan bertan badira, hizkuntza horiei toki bat eskainiko zaie, euskararen nagusitasuna kaltetu gabe.

7.5.8. Familia barruko hizkuntza erabilera

Familia da ondorio nabarmenak ezartzen dituen eragilea euskararen transmisioan. Ikastolak era zuzenean jokatu nahi badu, beharrezkoa izango du gurasoen hizkuntza tipologiak ondo zehazturik edukitzea, eta hartan oinarriturik tipologia bakoitzari dagozkion estrategia bereiztuak era sistematizatuan ezartzea.

Horregatik, Hautzaro ikastolan ikaslea eskolatu orduko, familiako hizkuntza egoera zein den jakiteko galdeketa bat egiten da: gurasoen nahiz etxean bizi diren hizkuntza ezagutza eta erabilera zein den, ikastolarekiko harremanak zein hizkuntzatan izate nahi duten...

7.5.9. Ikastolaren eta gurasoen arteko harremanak

Idatzizko harremanak. Guraso guztiek euskaraz idatziriko oharra jasotzen dituzte. Ohar horien helburua informazioa komunikatzea denez, gaztelaniadun guraso bikoteek, euskaraz idatziriko oharraz gain, gaztelaniaz idatziriko laburpena jasotzen dute.

Ebaluazio informeei modu berean jasotzen da. Guraso guztiek euskaraz idatzirikoa jasotzen dute eta gaztelaniadun gurasoek bi hizkuntzetara.

Guraso bilera orokorrak. Etapa bakoitzeko funtzionamendua ezberdina da (ik. eranskinak: *Hizkuntza trataera, Haurtzaro Ikastolako bileretan hizkuntza trataera eta Hizkuntzaren trataera bilera orokorretan*). Baina etapa guztietan, alde aurretik, gurasoei bileran emango den informazioa jasotzen duen txostena bidaltzen zaie: guraso erdaldunei txosten elebiduna eta euskaldunei euskara hutsean egindakoa.

Banakako guraso bilerak. Guraso bakoitzaren hizkuntza erabiltzen da, helburua informazio zehatza komunikatzea baita.

7.5.10. Gurasoen hizkuntz prestakuntza

Haurtzaro ikastolan, matrikulazio kanpainaren barruan, D ereduaren eta heziketan gurasoen garrantziaz jarduten gara. Horregatik, guraso erdaldunei euskara ikasteko dauden bitartekoen berri ematen zaie, euskalduntzeko aukerak eskura jarritz: bereziki, AEK euskaltegiak euskara ikasteko, alfabetatzeko eta EGA ateratzeko antolatzen dituen ikastaroak.

7.5.11. Beste ikastetxeekiko harremanak

Beste ikastetxeekiko harremanak, ahal den guztietan euskara hutsean izango dira. edo beharrezkoa denean euskaraz eta gaztelaniaz.

7.5.12. Gizarte-elkarteekiko harremanak

Gizarte-elkarteekiko harremanak, ahal den neurrian, euskara hutsean izango dira.

7.5.13. Udal eta herri-erakundeekiko harremanak

Udalarekin harremanak euskara hutsean izango dira eta herri-erakundeekiko harremanak, berriz, gaztelaniaz izango dira, euskaraz egiteko aukerarik ez dagoenean.

7.5.14. Hornitzaileekiko harremanak

Hornitzaileekiko harremanak, ahal den neurrian, euskara hutsean izango dira.

7.6. HIZKUNTZA ERREGISTROEN TRATAERA

Arestian aipatu bezala, Haurtzaro ikastola, zenbait urtetan, hizkuntza erregistroen trataera aztertzen aritu da eta proposatzen den erregistro ez-formalak eta formalak gauzatzeko E ereduaren aldeko hautua egin du:

Eredu hori zehazteko zenbait urrats ere zehaztu dira:

- Profesionalen prestakuntza eta jarrera.
- Ikasleen jatorrizko ezaugarri linguistikoak.
- Arrazoi psikolinguistikoak.
- Arrazoi soziolinguistikoak.
- Ahozkoa eta idatzia.
- Material didaktikoa.

eta horiei heltzea izango da datozen ikasturteetako erronka.

8

Hizkuntz Proiektua kudeatzeko ibilbidea

Hautzaro ikastolako Hizkuntz Proiektua garatzeko bost urteko iraupen ziklikoa izango duen ibilbidea diseinatu da. Ibilbide horren urrats nagusiak bi alditan bereizten dira:

- **Lehenengo ikasturtean** egitasmoa abiatzeko urrats nagusiak egin dira:


- Ikastolako hezkuntza-eragile guztiekin Ikastolen Hizkuntz Proiektuaren erreferentzia-markoaren gaineko hausnarketa egin.
- Hizkuntz Proiektuaren beharra partekatu eta aurrerantzean urratu beharreko bidea elkarrekin adostu eta onartu.
- Ikastolako komunikazio-testuinguru osoa aztertu eta hizkuntzen erabilera eta trataeraren diagnosia egin.
- Ikastolaren Hizkuntz Proiektua dokumentuaren lehen bertsioa idatzi.
- Diagnosian identifikatutako beharrei erantzuteko lau urterako plan estrategikoa idatzi.

- **Bigarren ikasturtetik aurrera** egin beharrekoak errepikatu egingo dira lau ikasturtez:

- Urteroko plana aurrera eraman eta egindako lanen ondorioz, plan hori ebaluatu; hurrengo ikasturteko plana idatzi eta aldaketaren bat behar izanez gero, hasierako Hizkuntz Proiektua dokumentua berrikusi eta osatu.
- Bosgarren ikasturtearen bukaeran plan estrategikoa ebaluatuko da eta ebaluazio horren arabera bigarren plan estrategiko bat idatzi ahal izango da, urratsen zikloa berriro abian jarri.

8.1. IBILBIDEAREN SEKUENTZIA GRAFIKOA

Hautzaro ikastolaren Hizkuntza Proiektua bizirik eta etengabeko eraldaketan dagoen agitasmoa denez, luzera begira diseinatutako plangintza behar du. Hautzaro ikastolan proposatzen den plangintza honakoa da:



8.2. IBILBIDEAREN URRATSAK

Hautzaro ikastolako Hizkuntza Proiektuaren ibilbidea kudeatzeko urratsak hauek dira.

8.2.1. Hausnarketa eta sozializazio-fasea (1. urratsa)

Hautzaro ikastolako zuzendaritzak Hizkuntz Proiektuaren beharra sumatu eta haren erreferentzia-markoa landu ondoren, horren gaineko hausnarketa-prozesua egin du ikastolako hezkuntza-eragile guztiekin. Lehen urrats horren helburuak Hizkuntz Proiektuaren beharra partekatzea eta aurrerantzean urratu beharreko bidea elkarrekin adostea eta onartzea izan dira. Hausnarketa horretan Hizkuntz Proiektua abian jartzean, esparru hauetan duen eragina nabarmendu behar da, besteak beste:

- Hizkuntza arloaren xedea, ardatz metodologikoa, hizkuntzen bateratzea, erabiltzen diren ikasmaterialak, helburu, eduki eta ebaluazio irizpideen arteko osagarritasuna.
- Irakasle guztiak hizkuntz irakasle izan beharraren ildotik, beste arloetako hizkuntz beharren azterketa eta erabiltzen diren ikasmaterialak premia horiekiko egokiak diren hausnartzea.
- Ikasleen gaitasun komunikatiboa garatu ahal izateko gela barruko eta gelaz kanpoko interakzioa berrikustea eta hura aberasteko estrategiak bideratzea.
- Irakasleen prestakuntza: metodologia, hizkuntz hobekuntza eta hizkuntzekiko

jarrera-ikastaroak.

- Ikastolako hizkuntz politika eta plangintza (gela barruan, gelatik kanpo eta eremu instituzionalean), hala nola, gelaz kanpoko jardueren hizkuntza (eredua, jarrera, prestakuntza...), ikastolako eraketa eta barne-komunikazioan erabilitako hizkuntza, kanpo-harremanetarako erabilitako hizkuntza.

Lehen urrats hau, Hizkuntz Proiektuaren beharra hezkuntza eragile guztiekin partekatzea, zuzendaritzaren gidaritzapean da.

8.2.2. Egoeraren diagnostikoa (2. urratsa)

Edozein plangintza diseinatu aurretik funtsezkoa da errealitatea ahalik eta ondoen behatzea. Haurtzaro ikastolan, hizkuntzekiko esku-hartze eremu guztietan (eremu pedagogikoan eta instituzionalean), hizkuntzen erabilera eta trataeraren **diagnosia** egin da.

8.2.3. Hizkuntz Proiektuaren idazketa (3. urratsa)

Pauso honen azken emaitza ikastetxearen Hizkuntz Proiektua dokumentuaren lehen bertsioa idaztea da. Dokumentu dinamiko eta bizia izan nahi du Ikastolaren Hizkuntz Proiektuak; hortaz, kontuan hartu behar da bertsio hori hastapenekoa dela eta hurrengo ikasturteetan egingo diren ebaluazioen ostean urtero hainbat zehaztapen, zuzenketa eta egokitzapen jasoko dituela.

Urrats horren ardura, Hizkuntz Proiektua idaztearena alegia, Haurtzaro ikastolako Hizkuntz Proiektua Taldearen egitekoa izan da. Talde horrek idatzitako dokumentuaren lehen bertsioa zuzendaritzarekin kontrastatu du eta oniritzia jaso.

8.2.4. Plan estrategikoa (4. urratsa)

Plan estrategikoa lau urterako ikastolak bere beharrei erantzuteko garatu duen gestio-plana da (ik. eranskina). Zaila denez diagnosian identifikatutako behar guztiei aldi berean erantzun egokia ematea, Haurtzaro ikastolak dituen beharren artean lehentasunak finkatu ditu. Gero, lehentasun estrategiko horiei aurre egin ahal izateko, hizkuntzen garapenean eta bereziki euskararen garapenean eta normalkuntzan gehien eragin dezaketen estrategiak definitu ditu eta horiek aurrera eramateko plan zehatza eratu.

8.2.5. Urteko plana (5. urratsa)

Lau urterako aurreikusitako plan estrategikotik urtebeterako hustuketa eginez osatuko dira urteko planak. Horien bitartez, progresiboki erantzungo litzaieke ikastolak antzeman dituen beharrei.

Aurrekoan bezala, urrats honen ardura ere zuzendaritza taldeak eta Hizkuntz Proiektua Taldeak dute. Hizkuntz Proiektua Taldeak urteko plana idatzi eta proposatu egingo du urtero, eta zuzendaritzak haren onespena bideratuko du.

8.2.6. Urteko memoria (6. urratsa)

Urteko planaren ebaluazio-prozesua da. Plangintza-fitxaren jarraipena egiten da urrats honetan. Urteko helburuak hiruhilean behin ebaluatuko dira eta urtean zehar lortutakoa balioetsi. Ikasturteko planari egindako egokitzapenak agertuko dira dokumentu honetan.

Ebaluatzen diren atalak urteko plangintza-fitxatik eratorritakoak dira. Aldatzen direnak honakoak dira: ebaluazio-adierazleak eta urteko lan-plangintza berrirako hobetzeko iradokizunak.

Lan horretarako Ikastolen kolektiboak bere web-orrian, www.ikastola.net, eskaintzen duen aplikazio informatikoa baliatuko da. Urrats honetan hizkuntz Proiektua Taldearekin batera zuzendaritza arituko da.

8.2.7. Hizkuntz Proiektua dokumentua eguneratzea (7. urratsa)

Lehen urtean gauzatutako lanaren arabera, ikastetxearen Hizkuntz Proiektua dokumentuaren lehen bertsioa eguneratu egin beharko du Hizkuntz Proiektu Taldeak, burutu berri den urteko memorian lortutako helburuen arabera.

7. urrats honetan egin beharreko lana teknikoa denez, Hizkuntz Proiektua Taldearen zeregina izango da.

8.2.8. Urteko plana (8. urratsa)

Urteko plan berria idazteko garaian, bi dokumentu erabiliko dira: plan estrategikoa eta urteko memoria. Bi dokumentu horietatik eratorritako helburuei erantzun beharko zaie plan berria egiteko garaian. Lortu ez diren helburuak berriz aurreikusi beharko dira hurrengo honetan, eta aztertu egin beharko da zein diren lorpenak ez eskuratzeko arrazoiak.

Ohi bezala, 8. urrats honen ardura zuzendaritza taldeak eta Hizkuntz Proiektua Taldeak izango dute.

8.2.9. Plan estrategikoaren ebaluazioa (azken urratsa)

Lau urteko epealdiaren amaieran plan estrategikoa ebaluatuko da. Horretarako, lau urteetan egindako urteko memoriak eta plan estrategikoaren ebaluazio-adierazleak eskuratu, eta lau urte horietako helburuen lorpen-maila aztertu beharko da.

Horren ondoren, hasierako diagnosian identifikatutako beharrak eta lehentasunak berrikusi eta, agian, hainbat eremuren diagnosia (hots, 2. urratsa) berregin beharko da.

Azterketaren ostean, lehentasunak egokitu edo erabat berrituko dira; ibilbide ziklikoa berriro abian jarriko da, plan estrategiko berria idatziz. Ondorioz, Ikastolaren Hizkuntz Proiektuak dagokion eguneratzea jasoko du. Lan horretarako, Ikastolen kolektiboak bere web-orrian, www.ikastola.net, eskaintzen duen aplikazio informatikoa baliatuko da.


Azken urrats honetan ere, Hizkuntz Proiektu Taldearekin batera zuzendaritzak aritu beharko du.

9

Hizkuntz Proiektuaren kudeaketarako egitura

Hautzaro ikastolako Hizkuntz Proiektuaren sorkuntzak, garapenak eta balioespenak, ikastolan egun dauden gobernu- nahiz funtzionamendu-organo guztien inplikazio eta elkarlan sendoaz gain, antolaketa egonkorra du: Hizkuntza Proiektua Taldea, Hizkuntz Departamentu Bateratua eta Euskaraz Bizi taldea.

Ondorengo irudian Hizkuntz Proiektuaren kudeaketak beharrezkoa duen egitura egonkorra ikus daiteke berdez, eta horiz, berriz, hizkuntzaren zeharkakotasuna bermatzearren Hizkuntz Proiektuaren lankidetzan aritzen diren eremuak.



10

Aurrerantzean...

Hautzaro ikastolako Hizkuntz Proiektuaren bidez, ikastolak marko orokora bat garatu du ikastolako hizkuntza bakoitzaren inguruan sortutako proiektuak uztarteko, hizkuntzaren irakaskuntzan erabilitako ikuspegi eta metodologia guztiak bateratzeko, hizkuntzaren erabilera instrumentalaren eraginkortasuna curriculum osoan hobetzeko, eta hizkuntzaren irakaskuntzaren eta hizkuntza gutxiaren gizarte-sustapenaren arteko lotura egokiak srotzeko bideak irekitzeko.


Horiek guztiak lau urterako diseinatu den plan estrategikoaren barnean kokatzen dira (ik. eranskina: *Plan Estrategikoa 2010-2014*) eta hona hemen zehaztutako helburu nagusiak:

1. Hautzaro ikastolak eremu instituzionalean urratsa garrantzitsua jorratu du dagoeneko: eremu honi dagozkion esparru bakoitzerako hizkuntza erabakiak jaso ditu Hizkuntza Proiektuan. Gainera, erabaki horiek ikastolako hezkuntza-komunitatearen partaide guztiek ezagutu eta betetzen dituzte.
Horregatik, ikastolaren testuinguru soziolinguistikoa eta familia-tipologia kontuan hartuta, Hautzaro ikastolak eremu honetako euskararen erabilera egokitzen jotzen du eta horri eustea espero du hurrengo urteetan. Horretarako, eremu honi dagozkion hizkuntza erabakiak betetzen jarraitzea izango da helburua.
2. Eskolako kideen hizkuntzazko prestakuntza eta erabilerari dagokionez, Hautzaro ikastolak ikasleen euskara erabilera mantentzeko hainbat jardura egiten ditu urteko. Hala ere, ama hizkuntza gaztelania duten ikasle batzuen euskararen erabilera indartze aldera, estrategia berriak behar dira.
Datozen lau urteetan, Hautzaro ikastolaren helburua izango da ikasleen gaitasun komunikatiboak lantzea eta gela barruko nahiz kanpoko testuinguruetan sortzen diren komunikazio-egoera esanguratsuak nola balia daitezkeen jakitea, ikasleen hizkuntzaren erabilera funtzionala egin dezaten.
3. Hautzaro ikastola ohartu zen euskararen erabilera eskolaren testuingurutik haratago, gelaz kanpoko jardueretara hedatzea garrantzitsua eta beharrezkoa zela. Asmo horretan euskararen erabilera sustatzeko helburuarekin, 1992-93 ikasturtean Hezkuntza Sailaren Ulibarri programan eta Ikastolen Elkarteko Euskaraz Bizi proiektuan murgildu zen. Ordutik hona, proiektu horren baitan, besteak beste, motibazio-kanpainak, eskolaz kanpoko ekintzak, euskal kultura bultzatzeko ekintzak... antolatu izan ditu urtero.
Hurrengo lau urteetan esparru horietan euskararen erabilera sustatzeko eta eragiteko hainbat ekintza berezi bideratzen jarraituko du.

Esan beharrik ez dago, egitekoak sakonak, zabalak eta ugariak direla Haurtzaro ikastolak bere kabuz bakarrik betetzeko. Hargatik, Ikastolen Elkartearen beste egitasmoez baliatzen da hemen finkatutako ildo eta irizpideak gauzatzeko.

11

Eranskinak



Haurtzaro Ikastola.
— O I A R T Z U N —

Hizkuntza trataera

**(2004ko otsailaren 4an ospatutako
Batzar Nagusian onartutako araudia)**

Hizkuntzaren trataera **Hautzaro ikastolan**

Ikastolak euskara eta euskal kultura berreskuratzeko, indartzeko eta hedatzeko sortu baziren, gure ikastolak, gaur egun, helburu hauekin bat egiten jarraitzen eta jarraituko du Oiertzen, jarrera eraginkor bat hartuz bere transmisioan. Aldi berean, Ikastola beste lurraldeetako kultura eta hizkuntzei irekia dago, beraingandik eta beraiekin aberastuz.

Euskara eta euskal kultura berreskuratzeko, indartzeko eta hedatzeko, Hautzaro Ikastolaren funtzionamendurako honako neurriak hartzen ditu:

a) Ikastolak ez ditu onartu Euskal Herritik heldu diren dokumenturik baldin eta euskaraz idatzita ez badago, eta ondorioz igorleari bueltatu egingo dira.

b) Guraso edo tutoreekin komunikazio idatzia.- Gurasoei banatzen zaien ohar idatziak honako hizkuntza irizpideak bete beharko ditu:

- Ikaslearen gurasoa edo tutorea batek euskaraz baldin badaki, oharra euskara hutsean bidaliko zaio.
- Ikaslearen guraso edo tutoreak ez badakite euskaraz, oharra euskaraz eta gazteleraz bidaliko zaio.

Si las Ikastolas nacieron para recuperar, fortalecer y difundir el euskara y la cultura vasca, nuestra Ikastola hace suyos dichos objetivos, y los impulsará en el presente y en el futuro en Oiertzen, adoptando una actitud activa en su transmisión. Por otro lado, la Ikastola esta abierta a la cultura y lenguas de otros pueblos, enriqueciéndonos de ellos y con ellos.

Para recuperar, fortalecer y difundir el euskara y la cultura vasca, se adoptan las siguientes medidas en el funcionamiento de Hautzaro Ikastola:

a) La Ikastola no aceptará ningún documento que procedente de Euskal Herria no venga redactado en euskera, y en consecuencia devolverá dicho documento a su remitente.

b) Comunicación escrita entre padres-madres o tutores.- Las comunicaciones escritas que se envíen a los-as padres-madres deberán cumplir los siguientes criterios:

- Si uno-a padre-madre o tutor-a de un-a alumno-a conoce el euskera, la comunicación se enviará redactada exclusivamente en euskera.
- Si ninguno de los-as padres-madres o tutores de un-a alumno-a conoce el euskera, la comunicación se enviará redactada en euskera y en castellano.

C) Guraso bilera orokorretako irizpideak: BILERA BAKARRA **EUSKARAZ**

Arrazoiak

Las lenguas, todas ellas, no son solamente un medio de intercambiar ideas, deseos y experiencias entre personas. Además de eso, las lenguas son de gran importancia en el desarrollo intelectual y afectivo del ser humano. Las lenguas junto con otros elementos, demostraciones o representaciones simbólicas de las culturas unidas a ellas, son parte de esas culturas y sirven de base, en mayor o menor medida, para su comunicación.

Por todo ello, la Ikastola Haurtzaro apuesta por un proyecto plurilingüista adaptando una actitud efectiva en la transmisión de las lenguas. La Ikastola es una entidad euskaldun que se compromete con el euskara y con la transmisión, desarrollo, normalización y potenciación de la cultura vasca, abriéndose a la cultura universal.

La normalización lingüística es un proceso social orientado a mantener y aumentar el número de hablantes y a ganar ámbitos de uso. Y en ese sentido, tanto en los aspectos no formales como en los formales, tanto en las interacciones orales como en las escritas, convertir o mantener el euskara como lengua habitual en las relaciones internas de la comunidad lingüística.

Porque estamos sensibles para con la realidad lingüística y porque queremos ayudar en la normalización del euskara, la Ikastola Haurtzaro acaba de realizar su propio Proyecto de Lenguas. Señalamos en él la importancia que adquiere la familia en la comunidad educativa y el uso del modelo lingüístico. Así pues, consideramos que **debemos mimar más el uso de la lengua en la relación FAMILIA- IKASTOLA.**

Hizkuntzak, haiek guztiak, ez dira ideia, nahi eta esperientziak pertsonen artean trukatzeko bitarteko soilak. Hizkuntza gizabanakoaren garapen intelektualean eta afektiboan garrantzi bizikoa da. Horrez gainera, hizkuntzak beraiei loturiko kulturen erakusle eta adierazpen sinboliko dira, kultura horien zati dira. Beraz, ez dago kultur edukirik gabeko hizkuntzarik.

Honekin guztiarekin bat eginez, Haurtzaro Ikastolak bere **hezkuntza proiektuan** eleaniztasunaren aldeko apustua egiten du, jarrera eraginkorra hartuz hizkuntzen transmisioan. Entitate euskalduna da ikastola, euskararen eta euskal kulturaren transmisio, garapen, normalizazio eta potentziazioarekin guztiz konprometitua, eta aniztasunaren izenean beste hizkuntza eta kulturak bultzatzen eta bermatzen dituen.

Normalkuntza euskararentzat hiztunak mantentzera eta gehitzera zein erabilera eremuak irabaztera bideratutako prozesu sozialtzat definituko genuke. Horren kariaz, alderdi formal zein ez-formaletan, ahozko zein idatzizko elkarrekintzetan, harremanetan, hizkuntza komunitatearen barne erlazioetan euskara ohiko hizkuntza bihurtuz edo mantenduz.

Hizkuntzaren egoerarekin sentsibilizatuta gaudelako eta euskararen normalkuntza bideratu nahi dugulako, Haurtzaro Ikastolak bere **HIZKUNTZA PROIEKTUA** martxan jarria du, jada. Horrela, hezkuntza komunitatean familiak daukan garrantzia azpimarratuz, ezinbestekoa ikusi dugu gure errealitate linguistikoa aldaketak txertatu beharra, **IKASTOLA-FAMILIA** arteko harremanetako hizkuntza eredua zaindu beharra.

Para ello:

- Deberíamos garantizar la sensibilización, concienciación, compromiso a favor del euskara de las diferentes comunidades educativas (padres-madres, alumn@s, profesores, empleados...)
- Así mismo, teniendo en cuenta el objetivo de las reuniones (socialización-comunicación), en pro de la lengua vasca, consideramos conveniente invitar a los padres-madres de diferentes modelos lingüísticos a una sola reunión. Aunque la reunión se realice en euskara, deberemos actuar respetuosamente y sin discriminación alguna. Sea cual sea nuestra lengua, en la reunión quedará garantizado el derecho y la opción a participar activamente.

Este fue el reto marcado en el curso 2003-2004. Durante este nuevo curso no nos queda más que seguir con el trabajo iniciado, siempre con la voluntad, esfuerzo y colaboración de todas y todos.

Horreatik:

- Haurtzaroko hezkuntza komunitate desberdinetako kideen artean (guraso, ikasle, irakasle, langile...) euskara hizkuntzaren aldeko sentsibilizazioa, kontzientziakzioa, konpromisoa bermatu beharko genuke.
- Halaber, bileretako helburu nagusia kontuan hartuz (sozializazio-komunikazioa), hizkuntzaren mesedetan, komenigarria ikusten dugu eredu linguistikoko desberdinetako gurasoak bilera bakarrera gonbidatzea. Bilera euskaraz egingo bada ere, errespetuz jokatu beharko dugu eta diskriminazioak arbuatu helburu komunikatiboa bermatu ahal izateko. Gure hizkuntza eredua edozein dela ere, bileran modu aktiboan jarraitzeko eskubidea eta aukera bermatuta geratuko da.

Hori izan zen, beraz, 2003-2004 ikasturteko erronka. Aurtan 2005-2006eko ikasturtean proiektu horrekin jarraitzea dagokigu, denon borondatearekin eta esfortzuekin, elkarlanean aurrera eginez.

Salbuespenak

Haur Hezkuntzako etapan guraso bilera orokorren deialdiak bi izango dira, bata euskaraz eta bestea gazteleraz.

Lehen Hezkuntzako lehenengo mailako kurtso amaierako bilera arte ere bi bilera egingo dira, bata euskaraz eta bestea gazteleraz. Azken bilera hau, aldiz, bat bakarra izango da eta protokolo orokorra jarraituz egingo da.¹

Durante toda la etapa de Educación Infantil, se celebran en cada convocatoria dos reuniones generales de padres y madres de aula, una en euskera y otra en castellano.

Hasta la última reunión general del primer curso de Educación primaria, también se realizaran dos reuniones por convocatoria, una en euskera y otra en castellano. En la última reunión de este curso se aplicaran los criterios generales.

¹ 2008-5-22an onartu zen Kontseilu Errektorean eta 08/09 ikasturtean jarri da indarrean.

Aldaketa honen aurretik, bilera bikoitzak egiten ziren HHko etapa osoan.

Prozedura:

• Bilera baino lehen:

- Deialdian bilera bakarra egingo dela adieraziko da. Aldez aurretik (etapa bakoitzean adostuko da zenbat egun lehenagotik), guraso guztiei txostena bidaliko zaie: Guraso erdaldunei txosten elebiduna eta euskaldunei euskara hutsean egindakoa.
- Txostenaren ezaugarriak:
 - Guraso erdaldunei bidalitako txostenean, ezkerrean idatziko da gazteleraz eta eskuinaldean euskaraz. Modu horretan, bi hizkuntzei trataera berdina eskainiko zaie.
 - Txostenak bileran transmitituko den informazioa jaso behar du. Hori horrela izateko, gaztelaniako itzulpena ahalik eta zehatzena izango da.
 - Txostenaren atal bakoitzaren bukaeran taula bat txertatuko da gurasoek euren galderak idatzi ahal izateko.

• BILERAN BERTAN:

- Hizlariak
 - Hizkuntza erraza erabiltzen ahaleginduko gara, argia, xumea eta teknizismorik gabekoa.
 - Bileraren estiloa norberak erabaki behar du? Alegia, azalpenak emango diren edo idatzitako testuaren irakurketa egingo den.
 - Mantso eta patxadaz hitz egiten ahaleginduko gara, baita ongi ahoskatuz ere.
 - Ulermena zailtzen ahal duten esapide edota hitzen kasuan sinonimoak erabiltzera jo beharko genuke: adibidez, "bermatu" edo "garantizatu".
 - Idatzitako testutik ateratzen garen momentutik, erreferentziak, azalpenak... emateko, horiek guztiak itzuli egin beharko dira.
 - Bileretan euskarri grafikoak erabili behar badira, horiek euskaraz izango dira eta gaztelaniazko itzulpenak bilera hasi aurretik banatuko zaizkie.

ANTES DE LA REUNIÓN:

- En la convocatoria se indicará que sólo se celebrará una única reunión. Con antelación (En cada etapa se acordará el tiempo de antelación), se enviará a todos los-as padres-madres el un documento informativo: a los-as padres-madres castellano parlantes redactado en bilingüe y a los vasco parlantes redactado exclusivamente en euskara.
- Características del documento:
 - El informe que se enviará a los-as padres-madres castellano parlantes, se realizará a doble columna, recogiendo el texto en castellano en la columna derecha y el texto en euskera en la columna izquierda. De este modo se ofrecerá el mismo tratamiento a los dos idiomas.
 - El informe deberá recoger toda la información que se vaya a transmitir en la reunión. Para ello, la traducción al castellano debela ser lo más precisa posible.
 - Al final de cada punto del informe, se insertará una tabla, en la que los-las padres-madres podrán escribir sus preguntas.

DURANTE LA REUNIÓN:

- El-a orador-a
 - Se esforzará en utilizar un lenguaje fácil, claro, sencillo y sin tecnicismos.
 - El estilo a adoptar en cada reunión lo marcará el-a orador-a. Es decir, se expondrán los temas o únicamente se leerá el documento
 - Se esforzarán en hablar despacio, con calma y en vocalizar bien.
 - Deberán emplear sinónimos en el caso de frases o palabras que puedan dificultar la comprensión.
 - Desde el momento en que se realicen referencias, aclaraciones..., que no estén recogidas en el documento, deberán ser traducidas al castellano.
 - Si en la reunión se utiliza soporte gráfico, este se realizará en euskera, y la traducción al castellano se repartirá antes de celebrarse la misma

- Gurasoak
 - Txosteneko puntu bakoitzaren amaieran, edozein hizkuntzatan galderak (etxetik idatzita ekarritakoak edo momentuan sortutakoak) egiteko aukera izango dute, eta erantzuna ere behar den hizkuntzan eskainiko zaie, beti ere bilerak euskaraz jarraituz.
 - Eskubidea izango dute eskatzeko: beste gurasoek egindako galdera-erantzunak itzul dakizkien.
 - **BILERAREN AMAIERAN:** Guraso guztiei 10 minutuko denbora tarteak eskainiko diegu behar dituzten argibideak emateko.
 - **AKTA:** Bileran egindako galdera-erantzunak jasoko ditu. Guraso euskaldunentzat euskaraz idatziko da eta guraso erdaldunentzat elebidunez.
 - Padres-madres
 - Al final de cada punto del documento, se reservará un espacio en el que se dará opción para anotar en cualquier idiomas preguntas (traídas de casa o surgidas durante la reunión), y la respuesta se proporcionará en el idioma que proceda, teniendo en cuenta que la reunión, en todo caso, deberá continuar en euskera.
 - Tendrán derecho a pedir que se les traduzca las preguntas-respuestas que otros-as padres-madres hayan realizado durante la reunión.
- AL FINALIZAR LA REUNIÓN:** A todos los-as padres-madres se les dedicará un período de 10 minutos para realizar cuantas aclaraciones se consideren necesarias.
- ACTA:** Se recogen los temas trabajados, expuestos y las preguntas-respuestas que se hayan efectuado, en la reunión. A los-as padres-madres vasco parlantes se le facilitará redactada en euskera y a padres-madres castellano parlantes, en bilingüe.

HAURTZARO IKASTOLAKO BILERETAN HIZKUNTZA TRATAERA

Helburua: **Ikastolan egiten diren bileretan kontuan hartuko diren hizkuntza trataeraren irizpideak jasoko dituen dokumentua izatea.**

BILERA MOTA	HIZKUNTZA IRIZPIDEAK
BATZAR NAGUSIA	Ahozko azalpena euskaraz izango da. Euskara menderatzen ez dutenentzat txosten elebiduna banatuko da. Galde-erantzunak une berean itzuliko dira. Beste materialak (diapositiba...) euskaraz izango dira.
KONTSEILU ERREKTOREA	Bilerak euskaraz izango dira.
HEZKUNTZA BATZORDEA	Bilerak euskaraz izango dira.
HIZKUNTZA BATZORDEA	Bilerak euskaraz izango dira.
INGURUMEN BATZORDEA	Bilerak euskaraz izango dira.
HARRETA PERTSONALERAKO BILERAK	Agurra euskaraz emango zaio. Bilera eskatzen duenaren hizkuntzaren baitan egongo da. Ikastolak eskatzen duenean, bestearen hizkuntza ezagutzaren baitan.



Bilera PEDAGOGIKOAK	Etapabukaerako ORIENTAZIO BILERAK	Orain arte, LH 6. eta DBH 3. eta 4. mailetan egin ohi dira. Geletako guraso bileretako prozedura erabili da. Material gehigarria euskaraz izango da.
	MAILAKO BILERAK	Geletako guraso bileretako prozedura bera erabili da.
	GELAKO BILERAK	Prozeduran aldaketa proposatu da. (Ikus txostena)
	GURASO ESKOLAK	Gaia aurkeztearekin batera, zein guraso interesaturik dagoen ezagutzen da. Ondoren, hiltunen kopuruaren arabera, hizkuntza erabakitzen da. Banatzen den materiala euskaraz ala elebidunez izango da. Horregatik, hiltzariari dokumentuak bi hizkuntzetan eskatzen zaizkio.
	BAKARKAKO GURASO BILERAK) (irakasleekin, jantoki, garraio edo eskolaz kanpoko jardueretako arduradunekin)	Bilerak euskaraz izango dira. Bikote mistoen kasuan, eta gurasoek hala eskatuta, gaztelaniaz.

BESTE BILERAK	LAN TALDEAK	Jarduera euskaraz izaten saiatuko da. Hala ere, partaidetza lehenesten denean, tratu elebiduna izango da.
	GAI MONIGRAFIKOAK-HITZALDIAK	Gaiaren lehentasuna eta hiltzariaren egokitasuna kontuan hartzen dira. Lehen aukera euskaraz izaten da.
	ESKOLAZ KANPOKO JARDUERETAKO BILERAK	Kurtso hasierako bilera izaten da, eta euskaraz. Dokumentazioa euskaraz edo elebiduna izaten da.
	GURASO ORDEZKARIEN BILERAK	Helburu nagusia gurasoen parte hartzea da. Horregatik, taldeko partaideak kontuan izaten dira. Ahal den neurrian euskaraz izango dira.

HIZKUNTZAREN TRATAERA BILERA OROKORRETAN

1.- Bilera bakarra egiteko arrazoiak:

- Haurtzaro hizkuntza komunitate desberdinetako kideen artean euskara hizkuntzaren aldeko sentsibilizazioa, konzientziazioa, konpromisoa bideratzea eta horretarako beharrezkoak diren baliabideak eskaintzea.
- Bilerak, komunikazio foroak izanik, horien helburuak argitzea: komunitateko partaideen arteko sozializazioa-integrazioa bideratzea edo komunikazioa transmititzea.

2.- Bilera hauetan jarraitu beharreko prozedurak :

- **Bilera baino lehen:**
 - Deialdian bilera bakarra egingo dela adieraziko da. Aldez aurretik (etapa bakoitzean adostuko da zenbat egun lehenagotik), guraso guztiei txostena bidaliko zaie: Guraso erdaldunei txosten elebiduna eta euskaldunei euskara hutsean egindakoa.
 - Txostenaren ezaugarriak:
 - Guraso erdaldunei bidalitako txostenean, ezker aldean idatziko da gaztelaraz eta eskuinaldean euskaraz. Modu horretan, bi hizkuntzei trataera berdina eskainiko zaie.
 - Txostenak bileran transmitituko den informazioa jaso behar du. Hori horrela izateko, gaztelaniako itzulpena ahalik eta zehatzena izango da.
 - Txostenaren atal bakoitzaren bukaeran taula bat txertatuko da gurasoek euren galderak idatzi ahal izateko.
- **Bileran bertan:**
 - Hizlariak
 - Hizkuntza erraza erabiltzen ahaleginduko gara, argia, xumea eta teknizismorik gabekoa.
 - Bileraren estiloa norberak erabaki behar du? Alegia, azalpenak emango diren edo idatzitako testuaren irakurketa egingo den.
 - Mantso eta patxadaz hitz egiten ahaleginduko gara, baita ongi ahoskatuz ere.
 - Ulermena zailtzen ahal duten esapide edota hitzen kasuan sinonimoak erabiltzera jo beharko genuke: adibidez, “bermatu” edo “garantizatu”.
 - Idatzitako testutik ateratzen garen momentutik, erreferentziak, azalpenak... emateko, horiek guztiak itzuli egin beharko dira.
 - Bileretan euskarri grafikoak erabili behar badira, horiek euskaraz izango dira eta gaztelaniazko itzulpenak bilera hasi aurretik banatuko zaizkie.
 - Gurasoak
 - Txosteneko puntu bakoitzaren amaieran, edozein hizkuntzatan galderak (etxetik idatzita ekarritakoak edo momentuan sortutakoak) egiteko aukera

izango dute, eta erantzuna ere behar den hizkuntzan eskainiko zaie, beti ere bilera euskaraz jarraituz.

- Eskubidea izango dute eskatzeko: beste gurasoek egindako galdera-erantzunak itzul dakizkien.
- **Bileraren amaieran:** Guraso guztiei 10 minutuko denbora tartea eskainiko diegu behar dituzten argibideak emateko.
- **Akta:** Bileran egindako galdera-erantzunak jasoko ditu. Guraso euskaldunentzat euskaraz idatziko da eta guraso erdaldunentzat elebidunez.

Bileretako ordutegia: 17:30ean.

Oiartzunen, 2004ko otsailaren 5ean
HAURTZARO IKASTOLAKO HIZKUNTZA BATZORDEA.

INDARGUNEAK, AHULEZIAK ETA BEHARRAK

HIZKUNTZ PLANGINTZA			
ESPARRUA	INDARGUNEAK	AHULEZIAK	BEHARRAK
Hizkuntza plangintza <i>Hizkuntza bakoitzaren lekua eta funtzioa ikastolako eremuetan; Murgiltze eredua; Gela barruko hizkuntza bakoitzaren ordutegia eta hasierako adina; Eremu instituzionalean hizkuntzen banaketa; Hizkuntza erregistroen trataera</i>	1. Etapa bakoitzean hizkuntzen banaketa eta ordutegiaren zehaztapena egituratuta dago. 2. Azken urte hauetan hizkuntza jatorri desberdineko ikasleen murgiltze ereduari irizpideak badaude. 3. Azken urte hauetan jatorri desberdineko ikasleen murgiltzeari buruzko irizpideak badaude. 4. Hizkuntza erregistroen inguruko formazioa jaso da. 5. Hizkuntza errefortzua baliabideen arabera eskaintzea.	3. Ikasle mota hau atenditzeko, proiektu diseinurik ez egotea. 4. Esku-hartze eremuen banaketari begira hizkuntza erregistroak definitu behar dira. 5. Hizkuntza Proiektua ez dute denek ezagutzen.	1. Etapa bakoitzean hizkuntzen banaketa eta ordutegia errebisatzea. 2. Ikasleen murgiltzeari buruzko irizpideak aztertu eta egokitu. 3. Esku-hartze eremuen banaketari begira hizkuntza erregistroak zehaztea. 4. Proiektua egitea. 5. Berridatzi ondoren, ezagutza zabaltzea.

EREMU PEDAGOGIKOA - GELA BARRUKOA			
KUDEAKETA PEDAGOGIKOA			
ESPARRUA	INDARGUNEAK	AHULEZIAK	BEHARRAK
HIZKUNTZ ARLOKO CURRICULUM BATERATUA			
Hizkuntz arloaren kudeaketa <i>Koordinazio orokorra; Hizkuntz arloari dagokion koordinazioa; Hizkuntz departamenduen antolaketa; Funtzionamendu-baldintzak eta harremanak: bertikalak (ziklo-etapen artean) eta horizontalak (beste departamenduekin)</i>	- Alderdi pedagogikoaren koordinazioa orokorra, maila eta ziklo esparruetan, bermatzen da. - Eleaniztasunaren inguruko proiektuan koordinazioa bermatzen da lanerako materialari dagokionean zein irakasleen artean. - Informazio orokorraren koordinazio egokia da. - Orientazio departamenduekin koordinazio orokorra bermatzen da. - Hizkuntza departamentua badago eta koordinazio orokorra bermatzen da eta Urteko Planean integratzen da. - Ebaluazio diagnostikotik eratorritako emaitzak aztertu dira.	- Ingelesari dagokionez, etapa arteko espezialistek, beraien artean dute koordinazioa, ez gainerako hizkuntzetako irakasleekin. - Frantsesa eta beste hizkuntzen arteko curriculum bateratua falta da. - Metodologiaren eta ebaluazioaren inguruko irizpide bateratuak falta dira.	- Ingeleseko irakasleak gainerako hizkuntzetako irakasleekin koordinatzea. - Frantsesa eta beste hizkuntzen arteko curriculum bateratzea. - Metodologia eta ebaluazioaren inguruko irizpideak bateratzea. - Ebaluazio diagnostikotik eratorritako emaitzak aztertu ondoren, HIZPROn gogoeta egingo dugu, gogoeta egiteko bidean.
Hizkuntz curriculum <i>Hizkuntza bakoitzeko curriculum-proiektua / hizkuntz curriculum bateratua; Hizkuntzen arteko loturak</i>	- Hizkuntzen plangintzari buruz irizpidean finkatuak daude, helburuak eta lortu beharrekoak ongi erregistratuta daude. - Curriculum proiektu (Urtxintza, Txanela eta Ostadar) bateratuen inguruan egiten da lana. - Ikastolen Elkarteko Hizkuntza proiektuaren metodologi irizpideekin gure kurrikulu proiektua erkatu izana. - Materialen inguruan aipatutako proiektuen arabera koordinazioa badago.	- Gaitasunen lege berriaren aurrean curriculum ez dago egokitua. - Batxilergoarekin koordinazio pedagogiko eskasia.	- Gaitasunen lege berriaren aurrean curriculum egokitzapenak egitea. - Batxilergoarekin koordinazio pedagogikoa antolatzea.

EREMU PEDAGOGIKOA - GELA BARRUKOA

KUDEAKETA PEDAGOGIKOA

ESPARRUA	INDARGUNEAK	AHULEZIAK	BEHARRAK
BESTE ARLOETAKO CURRICULUMAK			
Hizkuntzen trataera instrumentala <i>Arlo desberdinen hizkuntz beharrak; Hizkuntz irakasleen eta beste arloetako irakasleen arteko harremanak</i>	- Hizkuntza irakasleen eta beste arloetako irakasleen harremanak ebaluaketa saioetan bermatzen dira. - Hizkuntza Trataera Bateratuaren testuinguruan, ikaskuntza-irakaskuntza prozesuak koordinatzen dira.	Arlo batzuen hizkuntza beharrak kontuan hartzen badira ere, ez dago plangintza finkaturik.	- Arlo batzuen hizkuntza beharren plangintza finkatzea. - Arloetako hizkuntza behar bereziak definitzea. Behar horiek lantzeko eduki eta estrategiak hizkuntza arloarekin aztertzea eta adostea. - Hizkuntza Trataera Bateratuaren ildotik koordinazioa areagotu beharra.
PROIEKTU OSAGARRIAK			
Zehar-lerroen hizkuntz trataera	Egiten ditugun proiektu osagarri guztietan euskara bermatzen saiatu gara.	Zehar-lerroak lantzerakoan hizkuntza irizpideak ez dira kontuan hartzen.	Zehar-lerroen hizkuntza irizpideak adostea eta idaztea.
Euskara eta euskal kultura sustatzeko ekintzak	Plangintza orokorra badago: zenbait kultur ekintza curriculumean txertaturik daude.	Euskara eta euskal kultura sustatzeko irizpideak ez daude idatziz jasoak.	- Euskara eta euskal kultura sustatzeko irizpideak idaztea. - Euskara suspertzeko egiten diren jardueren proiektu osagarrien izaera ematea.

EREMU PEDAGOGIKOA - GELA BARRUKOA

INTERAKZIO DIDAKTIKOA

ESPARRUA	INDARGUNEAK	AHULEZIAK	BEHARRAK
HIZKUNTZ ERABILERA			
Arlo bakoitzeko harreman-hizkuntza: - Euskara denean - Gaztelania denean - Ingelesa denean - Frantsesa denean	- Hizkuntza gelan dagokion harreman - hizkuntza erabiltzen da. - Arlo bakoitzari dagokion harreman-hizkuntza HPn definitua dago.		Hizkuntza gelan dagokion harreman-hizkuntza erabiltzen jarraitzea.
Irakaslearen hizkuntz eredua eta hizkuntzarekiko jarrera	- Irakasleen hizkuntza euskara dela bermatzen da (%100). - Ikasleen hizkuntza eredua eta hizkuntzarekiko jarrera egokia bermatzen dira.		- Irakasleen hizkuntza euskara dela bermatzen jarraitzea. - Hizkuntza hobekuntzarako prestakuntzak egitea. .
Ikasleen arteko hizkuntz erabilera	- Ikasleen mintzagrametako presentzia/erabileraren batez bestekoa %84,52 izatea, udalerrikoa %72,94 denean. - Ikasleen arteko hizkuntza erabilera arlo bakoitzari dagokiona dela bultzatzen da.	- Gela batzuetan, bereziki DBHn gaztelaniaren aldeko hiztun aktiboak egotea - Ikasle pasibo ugari egotea.	- Ikasleen arteko hizkuntza erabilera arlo bakoitzari dagokiona dela bermatzen jarraitzea. - Estrategia berriak bilatzen saiatzea, beste erakundeekin harremanetan.
METODOLOGIA ETA DIDAKTIKA			
Komunikazio-egoera esanguratsuak	- Interakzio didaktikoan harreman hizkuntza euskara da. - Ikasleen arteko interakzioan saio mota parte-hartzaileak nagusitzen dira.		Taldekatze berriak egiterakoan hizkuntza irizpide adostuak kontuan hartzen jarraitzea.
Taldekatze motak eta irizpideak	Taldekatze berriak egiterakoan hizkuntza irizpideak ere kontuan hartzen dira.		

EREMU PEDAGOGIKOA - GELA BARRUKOA

KUDEAKETA PEDAGOGIKOA

ESPARRUA	INDARGUNEAK	AHULEZIAK	BEHARRAK
IRAKASLEEN PRESTAKUNTZA (BRANKA)			
Hizkuntz hobekuntza	- Irakasle prestakuntza formazio planak bideratzen dira. - Irakasle klaustroak azken urteetan hizkuntza hobekuntzako ikastaroa egina izatea.	Irakasleen hizkuntza kalitatea (erregistroak, euskalkiak...) hobetu beharra.	Irakasleen hizkuntza kalitatea (erregistroak, euskalkiak...) hobetzeko plangintza egitea.
Arloko metodologia	Irakasleek prestakuntzarako proiektuetan parte hartzen dute.		Irakasleek prestakuntzarako proiektuetan parte hartzen jarraitzea.
Hizkuntz jarrerak	Ikasleen mintzagrametako presentzia/erabileraren batez bestekoa %84,52 izatea.		Ikasleen hizkuntza jarrerak mantentzen jarraitzea.
BALIABIDEAK			
Arlo bakoitzeko ikasmaterialak	Ikuspegi komunikatiboa bermatzen duten ikasmaterialak erabiltzen dira.	Konpetentziek ekarritako aldaketak ikasmaterialean duen eragina aztertu gabea.	Konpetentzien lanketarako ikasmaterialen baliagarritasuna aztertzea.
Espazioen banaketa eta hizkuntz trataera <i>Hizkuntza gelak; Gela barruko hizkuntz paisaia: horma-irudiak, kartelak eta abar</i>	- Ingelesa lantzeko gela berezia dago. - Gela bakoitzak edota zikloak bere liburutegia dauka. - Liburutegi nagusia erabiltzen da.	Baliabide mugatuak direla eta, DBHko ingeleseko eta frantseseko gelak finkoak ez izatea.	Hizkuntza-gela premia guztiak asetzea.
Informazio-iturrien eta bestelako baliabideen hizkuntza	Hizkuntza eta IKTak uztartzeko inbertsio handiak egin dira.	IKT baliabideetako hizkuntza erabat euskaraz ez izatea.	IKT baliabideetan euskara bermatzea.

EREMU PEDAGOGIKOA - GELAZ KANPOKOA

PARTAIDEEN INTERAKZIOA (*Branka*)

ESPARRUA		INDARGUNEAK		AHULEZIAK		BEHARRAK	
Jolasaldiak							
Hizkuntz erabilera	Irakasleen hizkuntz erabilera	Irakasleen arteko harreman hizkuntza beti euskara da.				Irakasleen arteko harremanetan hizkuntza beti euskara izaten jarraitzea.	
	Irakasleen eta ikasleen arteko hizkuntz erabilera	Irakasle eta ikasleen arteko harremanetan euskara bermatzen da.		Ikasle gutxi batzuek elkarriketak gaztelaniaz hasteko joera dute.		Ikasle horiekin estrategia berriak lantzea.	
	Ikasleen arteko hizkuntz erabilera	Hiztun neurketak sistematizatuta izatea. Emaizta horien arabera, erabileraren %95 euskaraz da.		Ama hizkuntza gaztelania duten ikasleen artean, batzuek gaztelaniaz aritzeko joera dute.		Ikasle horiekin estrategia berriak lantzea.	
Metodologia eta didaktika	Komunikazio-egoera ustiatzeko estrategiak	Euskaraz Bizik antolatutako kanpainak Urteko Planean integratuta daude.		Euskaraz Biziko kanpainetan lortutako emaitzek iraupen gutxi izatea.		Euskaraz Biziko kanpainak antolatzen jarraitzea eta estrategia berriak sortzea.	
Irteerak, egonaldiak, kanpaldiak							
Hizkuntz erabilera	Irakasleen hizkuntz erabilera	Irakasleen arteko harreman hizkuntza beti euskara da.				Irakasleen arteko harreman hizkuntza beti euskara izaten jarraitzea.	
	Irakasleen eta ikasleen arteko hizkuntz erabilera	Irakasle eta ikasleen arteko harremanetan euskara bermatzen da.		Ikasle gutxi batzuek elkarriketak gaztelaniaz hasteko joera dute.		Ikasle horiekin estrategia berriak lantzea.	
	Ikasleen arteko erabilera	Ikasleen gehiengoak, %95ak, euskaraz hitz egiten du.		Ama hizkuntza gaztelania duten ikasleen artean, batzuek gaztelaniaz aritzeko joera dute.		Ikasle gehiengoak euskaraz hitz egiten jarraitzea.	
Metodologia eta didaktika	Komunikazio-egoera ustiatzeko estrategiak	Ekintza horiek hizkuntzaren mesederako ere erabiltzen dira.				Ekintzak antolatzerakoan hizkuntza irizpideak ere kontuan hartzen jarraitzea.	

Sarrera-irteerak				
Hizkuntz erabilera	Ikasleen arteko hizkuntz erabilera	Ikasleen gehiengoak, %85ak, euskaraz hitz egiten du.	Ikasle gutxi batzuek sarrera-irteeretan gaztelaniaz ere aritzeko joera dute.	Ikasleen eta euren familien arteko hizkuntza ohiturak aztertzea estrategia egokiak sortzeko.
Jantokia				
Hizkuntza erabilera	Hezitzaileen hizkuntz erabilera	Hezitzaileen arteko harreman hizkuntza euskara da.		Hezitzaileen arteko harreman hizkuntza euskara izaten jarraitzea.
	Hezitzaileen eta ikasleen arteko hizkuntz erabilera	Hezitzaile eta ikasleen arteko harremanetan euskara bermatzen da orokorrean.	Ikasle gutxi batzuek elkarrizketak gaztelaniaz hasteko joera dute.	Hezitzaileen artean estrategia berriak lantzea.
	Ikasleen arteko hizkuntz erabilera	Ikasleen gehiengoak, %90ak, euskaraz hitz egiten du.	Ama hizkuntza gaztelania duten ikasleek, bereziki DBHkoek, beren artean gaztelaniaz aritzeko joera dute.	Ikasleen hizkuntza ohiturak aztertzea estrategia egokiak sortzeko.
Metodologia eta didaktika	Komunikazio-egoera ustiatzeko estrategiak	Jantokiko komunikazio egoeretan euskara bermatzen da.	Hizkuntz estrategia berriak ez daude martxan.	Jantokiko komunikazio egoerak hizkuntzaren mesedetara jartzea, estrategia berriak aplikatuz.

Garraioa				
Hizkuntz erabilera	Begiraleen hizkuntz erabilera	Begiraleen arteko harreman hizkuntza euskara da.		Begiraleen arteko harreman hizkuntza euskara izaten jarraitzea.
	Begiraleen eta ikasleen arteko hizkuntz erabilera	Begirale eta ikasleen arteko harremanetan euskara bermatzen da orokorrean.	Ikasle gutxi batzuek elkarriketak gaztelaniaz hasteko joera dute.	Begiraleen artean estrategia berriak lantzea.
	Ikasleen arteko hizkuntz erabilera	Ikasleen gehiengoak, %80ak, euskaraz hitz egiten du.	Ama hizkuntza gaztelania duten ikasleek, bereziki DBHkoek, beren artean gaztelaniaz aritzeko joera dute.	Ikasleen hizkuntza ohiturak aztertzea estrategia egokiak sortzeko.
Eskolaz kanpoko ekintzak				
Hizkuntz erabilera	Hezitzaileen hizkuntz erabilera	Hezitzaileen arteko harreman hizkuntza euskara da.		Hezitzaileen arteko harreman hizkuntza euskara izaten jarraitzea.
	Hezitzaileen eta ikasleen arteko hizkuntz erabilera	Hezitzaile eta ikasleen arteko harremanetan euskara bermatzen da orokorrean.	Ikasle batzuek elkarriketak gaztelaniaz hasteko joera dute.	Hezitzaileen artean estrategia berriak lantzea.
	Ikasleen arteko hizkuntz erabilera	Ikasleen gehiengoak, %85ak, euskaraz hitz egiten du.	Ikasle batzuek, bereziki kirol jardueretan, gaztelaniazko formak erabiltzeko ohitura dute.	Ikasleen hizkuntza ohiturak aztertzea estrategia egokiak sortzeko.
Metodologia eta didaktika	Komunikazio-egoera ustiatzeko estrategiak	Eskolaz kanpoko ekintzetako komunikazio egoeretan euskara bermatzen da.	Hizkuntz estrategia berriak ez daude martxan.	Kirolarekin lotutako hizkuntza estrategiak lantzea.
Jaiak eta ospakizunak				
	Partaideen hizkuntz erabilera	Partaideen %95ak euskaraz hitz egiten du.		Partaideen arteko hizkuntza erabilera euskaraz izan dadin bermatzea.
Metodologia eta didaktika	Komunikazio-egoera ustiatzeko estrategiak	Jai eta ospakizunetako egoerak euskararen mesedetarako dira.		Jai eta ospakizunetako egoerak euskararen mesedetarako izaten jarraitzea.
HEZITZAILEEN PRESTAKUNTZA				
Hizkuntz hobekuntza		Hezitzaileen euskararen ezagutza bermatzen da.	Hezitzaileen euskara kalitatea hobetzeko plan sistematikorik ez dago martxan.	Hezitzaileen euskara kalitatea hobetzeko plana antolatzea.
Arloko metodologia				

Hizkuntz jarrerak	• Hezitzaileek euskararekiko jarrera baikorra dute.		• Hezitzaileen euskararekiko jarrera baikorra bermatzea.
BALIABIDEAK			
Gune eta zerbitzuetako baliabideen hizkuntz trataera	• Paisaian eta komunikazioetan euskara bermatzeko baliabideak badaude.		• Paisaian eta komunikazioetan euskara bermatzeko baliabideez hornitzen jarraitzea.
EREMU INSTITUZIONALA ERAKETA ETA BARNE-KOMUNIKAZIOA (<i>Branka</i>)			
IKASTETXEA			
ESPARRUA	INDARGUNEAK	AHULEZIAK	BEHARRAK
HIZKUNTZ ERABILERA			
Gobernu-, administrazio- eta funtzionamendu-organoen hizkuntz erabilera eta trataera	• Gobernu-, administrazio- eta funtzionamendu-organoetan batez besteko euskararen presentzia eta erabilera %79,85 da.		• Gobernu-, administrazio- eta funtzionamendu-organoetan euskararen presentzia eta erabilera ziurtatzen jarraitzea.
Langileen hizkuntz profila	• Administrazio eta zerbitzuetako langileen hizkuntza profila %79,29koa da.		• Administrazio eta zerbitzuetako langileen hizkuntza profila horrela mantentzea eta ahal bada hobetzea.
Hizkuntzen trataerari buruzko erabakiak biltzen dituzten dokumentuak (Hezkuntza Proiektua, Curriculum Proiektua, AIA..)	• Ikastolako dokumentazioari dagokion hizkuntza euskara da. • Ikastolako dokumentazioan hizkuntza gaiei buruz egiten diren aipamenak elkarren artean koherenteak dira.		• Ikastolako dokumentazioari dagokion hizkuntza euskara izaten jarraitzea. • Ikastolako dokumentazioan hizkuntza gaiei buruz egiten diren aipamenak elkarren arteko koherentzia mantentzea.

LANGILEEN HIZKUNTZ PRESTAKUNTZA			
Hizkuntz hobekuntza	Ikastolako langile orok euskaraz egoki aritzeko gaitasuna du.	Hizkuntzaren kalitatea (erregistroak) hobetzeko premia du.	Hizkuntzaren kalitatea (erregistroak) hobetzeko prestakuntza antolatzea.
Hizkuntzekiko jarrerak	Langileen euskararekiko jarrera oso baikorra da.		Langileen euskararekiko jarrera oso baikorra da.
BALIABIDEAK			
Ekonomia- eta administrazio-dokumentazioaren hizkuntz trataera	Ekonomia- eta administrazio-dokumentazioa, oro har, euskaraz egiten da.		Ekonomia- eta administrazio-dokumentazioa, oro har, euskaraz egiten jarraitzea.
IKT euskarrien hizkuntza trataera	IKT euskarriei dagokion hizkuntza euskara izan saiatzen gara.	Oraindik software guztiak ez daude euskaraz.	Software guztiak egokitzea, euskaraz izan daitezen. .
Ikastolako espazioen hizkuntz trataera (hizkuntz paisaia, errotulazio, informazio-guneak...)	Ikastolako espazioak euskaraz daude.		Ikastolako espazioak euskaraz izaten jarraitzea.
EREMU INSTITUZIONALA			
ERAKETA ETA BARNE-KOMUNIKAZIOA (<i>Branka</i>)			
FAMILIA			
ESPARRUA	INDARGUNEAK	AHULEZIAK	BEHARRAK
HIZKUNTZ ERABILERA			
Familien tipologia	Gurasoen %77,61a euskalduna da.		
Familia barruko hizkuntz erabilera		Familia barruko hizkuntza erabilera ez dago aztertua.	Familia barruko hizkuntza erabilera aztertzea.
Ikastolaren eta gurasoen arteko harremanak	Ikastola eta gurasoen arteko harremanetako (guraso bilerak) hizkuntza erabilerarako protokoloa egina dago.		Ikastola eta gurasoen arteko harremanetako (guraso bilerak) hizkuntza erabilerarako protokoloa mantentzea.

GURASOEN PRESTAKUNTZA			
Hizkuntz hobekuntza		Familia-tipologia bakoitzari egokitutako hizkuntza prestakuntzarik ez dago.	Familia-tipologia bakoitzari egokitutako prestakuntza bideratzea.
Hizkuntzekiko jarrera	- Bailaran gurasoentzat transmisio kanpainak antolatzen dira eta parte hartzen dute. - Oro har, euskararekiko jarrera positiboa dute.	Sarrera-irteeretan zenbait guraso euskaldunek erdaraz aritzeko joera dutela ikusi da.	- Bailarako gurasoentzat antolatutako transmisio kanpainak bultzatzea. - Euskararekiko jarrera positiboa mantentzen jarraitzea. - Sarrera-irteerarako hizkuntza ohituretan eragiteko estrategiak aztertu eta aplikatzea.
BALIABIDEAK			
Komunikazio baliabideen hizkuntz trataera	Gurasoen informaziorako hizkuntza irizpideak finkatuta daude.		Gurasoen informaziorako hizkuntza irizpideak mantentzea.
EREMU INSTITUZIONALAKANPO-HARREMANAK (Branka)			
Beste ikastetxeekiko harremana	Beste ikastetxeekiko harremanak %100 euskaraz izaten dira.		Beste ikastetxeekiko harremanak %100 euskaraz izaten jarraitzea.
Gizarte-elkarteekiko harremanak	Herriko gizarte-elkarteekin harremanak %100 euskaraz izaten dira.		Herriko gizarte-elkarteekin harremanak %100 euskaraz izaten jarraitzea.
Udal eta beste herri-erakundeekiko harremanak	Udal eta beste herri-erakundeekin harremanak oro har euskaraz izaten dira.		Udal eta beste herri-erakundeekin harremanak euskaraz izaten jarraitzea.
Hornitzaileekiko harremanak	Hornitzaileei begira hizkuntza protokoloa badugu.		Hornitzaileei begira hizkuntza protokoloaren jarraipena egitea.



PLAN ESTRATEGIKOA 2010-2014

HAUSNARKETA eta PLAN ESTRATEGIKOA Haurtzaro Ikastola 2010-2014

EREMUEN GAINEN HAUSNARKETA

JUSTIFIKAZIOA

Justifikazioa:

Haurtzaro ikastola Oiartzunen kokatua dago eta %95ean herriko ikasleak eta familiak biltzen ditu. Beste %5a inguruko herrietakoak dira: Errenteria, Pasaia, Irun... Eusko Jaurlaritzak 2006an eginiko inkestako datuen arabera, %72.94 euskaldunak dira. Baina Haurtzaro ikastolako familia euskaldunen kopurua %77.61 da. Euskal kultura berreskuratzeko, igortzeko eta indartzeko sortu baziren, Haurtzaro ikastolak helburu hauekin bat egiten jarraitzen eta jarraituko du Oiartzunen, jarrera eraginkor bat hartuz bere transmisioan, aldi berean, beste lurraldeetako kultura eta hizkuntzei irekia, beraiegandik eta beraiekin aberastuz.

Haurtzaro ikastolako hizkuntza nagusia euskara da; horrela, gaztelaniadun gurasoekin izan daitezkeen harremanak izan ezik, komunitateko beste kideen arteko harreman pertsonalak euskaraz bideratzen dira.

Kudeaketa pedagogikoan eta administratiboan euskararen erabilera, osotasunean bermatuta dago.

- **Herri baten funtsezko ezaugarrietariko bat hizkuntza denez, gure ikastolara iristen diren ikasle guztiek euskararen erabilpen zuzena komunikaziorako eta ikastolan eman daitezkeen ikasketetarako lor dezaten, ikasle guztien lehen hizkuntza izatea izango du helburutzat.**
- **Era berean, ematen edo eman daitezkeen hizkuntza kanpotarrak irakatsi, landu eta sendotuko ditu, eta egungo Euskal Herriko hizkuntza errealitatea kontuan hartuz, ikasleen gaztelaniako hizkuntza konpetentzia ziurtatuko du, edozein gizarte nahiz eskola giroan normaltasunez bizi daitezen**
- **Alde batetik, euskarak bere hizkuntza eremuan erabateko garapena lor dezan nahi dugu eta, bestetik, hainbat hizkuntzatan ondo moldatuko diren pertsonak prestatu. Hori dela eta, Eleaniztasunaren proiektua eramango dugu aurrera eta gure ikasleak euskara, gaztelania eta ingelesa jakin eta erabiltzera irits daitezen planifikatu beharko dugu irakaskuntza. Eleaniztasun goiztiarraren proiektuan murgilduta gaude duela hamar urte.**

- **Bestalde, frantsesa aukerazko gaia izango da Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan. Gaur egungo gizartean hizkuntza aniztasuna hezkuntza kalitatearekin identifikatzen da. Bestalde, Oiartzunen kokapena eta tradizioz hizkuntza hau ikasi duen herria izatea, badira arrazoi garrantzitsuak Ikastolak laugarren hizkuntza hau eskaintzeko.**

EREMU INSTITUZIONALA

Aurreko plangintza-alдитik eremu honen gaineko hausnarketa, balorazioa, ondorioak, jarraibideak...

Hautzaro ikastolak eremu honetan urrats garrantzitsua joratu du dagoeneko: eremu honi dagozkion esparru bakoitzerako hizkuntza erabakiak jaso ditu Hautzaroko Hizkuntza Proiektuan. Gainera, erabaki horiek ikastolako hezkuntza-komunitatearen partaide guztiek ezagutu eta betetzen dituzte.

Eremuaren gaineko BRANKAren datuak

Presentzia:	%86.29
Erabilera:	%79.85
Espero zitekeen erabilera:	%74.23-%80.36
BRANKAk ateratako datuen interpretazioa:	Erabilera ertaina. Ikastetxeko euskararen erabilera maila euskararen presentzia-mailak, berez (zoriz), ahalbide dezakeen atalase-maila zerbait gainditzen duenean; hizkuntza-bizitasun maila moteleko ikastetxea dela adierazten du. Eraginkortasun txikiko hizkuntza-plana.

Eremuaren gaineko hausnarketa eta 4 urteko plangintzarako irizpideak.

Ikastolaren testuinguru soziolinguistikoa eta familia-tipologia kontuan hartuta, Haurtzaro ikastolak eremu honetako euskararen erabilera egokitzat jotzen du eta hori eustea espero du hurrengo lau urteetan. Horretarako, eremu honi dagozkion hizkuntza erabakiak betetzen jarraitzea izango da eremu honetarako helburua.

ESKOLAKO KIDEEN HIZKUNTZAZKO PRESTAKUNTZA ETA ERABILERA

Aurreko plangintza-alditik eremu honen gaineko hausnarketa, balorazioa, ondorioak, jarraibideak...

Haurtzaro ikastolak ikasleen euskara erabilera mantentzeko hainbat jarduera egiten ditu urtero, Hizkuntza Proiektuko Urteko Planetan zehaztuak. Hala ere, ama hizkuntza gaztelania duten ikasle gutxi batzuen euskararen erabilera indartze aldera, estrategia berriak behar dira.

Haurtzaro ikastolaren prestakuntza plana, besteak beste hizkuntza beharrei egokitutako tresna da eta bere baitan hartzen ditu hezkuntza komunitatearen partaideak.

Hurrengo lau urteetan Haurtzaro ikastolaren helburua izango da ikasleen gaitasun komunikatiboak lantzea, gela barruko nahiz kanpoko testuinguruetan sortzen diren komunikazio-egoera esanguratsuak nola balia daitezkeen jakitea, ikasleek hizkuntzaren erabilera funtzionala egin dezaten.

Eremuaren gaineko BRANKAren datuak

Presentzia:	%77.25
Erabilera:	%90.63
Espero zitekeen erabilera:	%77.45
BRANKAk ateratako datuen interpretazioa:	Erabilera oso handia. Ikastetxeko euskararen erabilera maila euskararen

presentzia-mailak ahalbide dezakeenda gainditzen du; hikuntza bizitasun maila handiko ikastetxea dela adierazten du. Hizkuntza-plana arrakastatsua.

Eremuaren gaineko hausnarketa eta 4 urteko plangintzarako irizpideak.

Hautzaro ikastolak hezkuntza-komunitatearen partaideen hizkuntza erabilera indizea mantentzea edo igotzea izango du helburu.

GELAZ KANPOKO JARDUERAK

Aurreko plangintza-alдитik eremu honen gaineko hausnarketa, balorazioa, ondorioak, jarraibideak...

Hautzaro ikastolak ikusi zuen euskararen erabilera eskolaren testuingurutik haratago hedatzea garrantzitsua eta beharrezkoa zela. Asmo horretan euskararen erabilera sustatzeko helburuarekin, 1992-93 ikasturtean Hezkuntza Sailaren Ulibarri programan eta Ikastolen Elkarteko Euskaraz Bizi proiektuan murgildu zen. Ordutik hona, proiektu horren baitan, besteak beste, motibazio-kanpainak, eskolaz kanpoko ekintza, euskal kultura bultzatzeko ekintzak... antolatu izan ditu urteko.

Eremuaren gaineko BRANKAren datuak

Presentzia:	%88.29
-------------	---------------

Erabilera:	%87.37
------------	---------------

Espero zitekeen erabilera:	%83.07 - %88.49
----------------------------	------------------------

BRANKAk ateratako datuen interpretazioa:	Erabilera handia. Ikastetxeko euskararen erabilera maila euskararen
--	--

presentzia-mailak, berez (zoriz), ahalbide dezakeena esanguratsuki gainditzen duenean; hizkuntza-bizitasun maila biziko ikastetxea dela adierazten du. Hizkuntza-plana eraginkorra.

Eremuaren gaineko hausnarketa eta 4 urteko plangintzarako irizpideak.

Hautzaro ikastolak euskara komunikazio hizkuntza nagusia izatea du helburu gelaz kanpoko jardueretan, eta baita herriko beste erakundeek antolatutako aisialdi edo kultur jardueretan ere. Esparru horietan euskararen erabilera sustatzeko eta eragiteko hainbat ekintza berezi bideratzen jarraitu beharko du hurrengo lau urtetan.

BESTELAKO TRESNAK

Bestelako tresnak:

2005-2006 ikasturtetik aurrera lehenengo eta hirugarren hiruhilekoetan gelaz kanpoko zenbait jardueretan hiztun neurketak egin dira. Emaita horiek ere diagnosia osatzeko balio izan dute. Beren baliagarritasuna ikusita, datozen lau urteetan hiztun neurketak egiten jarraituko da.

EREMUEN LEHENTASUNEN INGURUKO HAUSNARKETA

Eremuen lehentasunen inguruko hausnarketa

Hautzaro ikastolak hizkuntza proiektuaren garapen egokia ziurtatzeko hizkuntzekiko eskuhartze guztiei emango die garrantzia. Horien artean lehenetsiko dituenak ondorengo hauek dira:

Gela barruko eremuan ikasleen komunikazio konpetentzia garatzea. Horretaz gain, hizkuntzen ikuspegi integratzailea eta horrekin batera curriculum bateratua gauzatzea.

- Eskolaz kanpoko eremuan euskararen erabilera mantentzea eta horretarako antolatzen diren ekintzak bideratzen jarraitzea.
- Eremu instituzionalean euskararen erabilerari eustea.

PLAN ESTRATEGIKOA 2010-2014

1.1. ATALA: EREMU INSTITUZIONALA - IKASTETXEA (LANGILEEN PRESTAKUNTZA IZAN EZIK)

HELBURUA	JARDUERA MOTAK	ADIERAZLE KUANTITATIBOAK	ADIERAZLE KUALITATIBOAK	ARDURADUNAK	DENBORALIZAZIOA			
					10-11	11-12	12-13	13-14
Etapak bakoitzean hizkuntzen banaketa eta ordutegia errebisatzea.	• Erabakiak adosteko prozesuak		• Asebetetzearen balorazioa = 10	Zuzendaritza	X	X	X	X
Ikasleen murgiltzeari buruzko irizpideak aztertzea eta egokitzea.	• Erabakiak adosteko prozesuak		• Betetze mailaren balorazioa = 10	Zuzendaritza		X		
Esku-hartze eremuen banaketari begira hizkuntza erregistroak zehaztea.	• Prestakuntza edo trebatze jarduerak	• Prestakuntza jasotzaile posibleekin alderatuz = %70		Zuzendaritza	X			
Jatorri ezberdinetako ikasleen murgiltze proiektua egitea.	• Sentiberatze-motibazio jarduerak • Prestakuntza edo trebatze jarduerak • Hausnarketa jarduerak	• Prestakuntza jasotzaile posibleekin alderatuz = %70	• Betetze mailaren balorazioa = 7	Hizkuntz Proiektua taldea			X	X
Hizkuntza Proiektua berriro ondoren, ezagutza zabaltzea.	• Hausnarketa jarduerak		• Parte-hartzearen balorazioa = 7	Hizkuntz Proiektua taldea	X			
Gobernu-, administrazio- eta funtzionamendu- organoetan euskararen presentzia eta erabilera	• Mantentze jarduerak • Ebaluazio jarduerak		• Betetze mailaren balorazioa = 9	Zuzendaritza	X	X	X	X

ziurtatzen jarraitzea								
Administrazio eta zerbitzuetako langileen hizkuntza profila horrela mantentzea eta ahal bada hobetzea.	•Mantentze jarduerak •Ebaluazio jarduerak		•Betetze mailaren balorazioa= 9		X	X	X	X
Ikastolako dokumentazioari dagokion hizkuntza euskara izaten jarraitzea	•Ebaluazio jarduerak •Antolaketa jarduerak	•Brankarekin lotutakoa= %100		Zuzendaritza	X	X	X	X
Ikastolako dokumentazioan hizkuntza gaiei buruz egiten diren aipamenak elkarren arteko koherentzia mantentzea	•Ebaluazio jarduerak •Antolaketa jarduerak		•Betetze mailaren balorazioa= 9	Zuzendaritza	X	X	X	X
IKT euskarriei dagokion hizkuntza euskara izaten saiatzea.	•Besterik	•Betetze maila= %90		Besterik: IKT taldea	X	X	X	X
Ikastolako espazioetan hizkuntza nagusia euskara izaten jarraitzea.	•Besterik •Ebaluazio jarduerak	•Betetze maila= %90		Hizkuntz Proiektua taldea	X	X	X	X

1.2. ATALA: EREMU PEDAGOGIKOA - GELA BARRUKOA (1. ZATIA)

HELBURUA	JARDUERA MOTAK	ADIERAZLE Kuantitatiboak	ADIERAZLE Kualitatiboak	ARDURADUNAK	DENBORALIZAZIOA			
					10-11	11-12	12-13	13-14
Ingelesko irakasleak gainerako hizkuntzetako irakasleekin koordinatzea.	•Hausnarketa jarduerak		•Betetze mailaren balorazioa= 8	Besterik: Ikasketaburuak	X	X		
Frantsesa eta beste	•Hausnarketa jarduerak		•Asebetetzearen	Besterik:	X	X		

hizkuntzen arteko curriculum bateratzea.			balorazioa= 8	Ikasketaburuak				
Metodologia eta ebaluazioaren inguruko irizpideak bateratzea.	•Erabakiak adosteko prozesuak •Hausnarketa jarduerak		•Asebetetzearen balorazioa= 8	Zuzendaritza	X	X	X	X
Ebaluazio diagnostikotik eratorritako emaitzak aztertu ondoren, HIZPRON gogoeta egingo dugu, gogoeta egiteko bidean.	•Prestakuntza edo trebatze jarduerak •Erabakiak adosteko prozesuak •Hausnarketa jarduerak	•Betetze maila= %80	•Asebetetzearen balorazioa= 8	Zuzendaritza	X	X		
Gaitasunen lege berriaren aurrean curriculum egokitzapenak egitea.	•Prestakuntza edo trebatze jarduerak •Erabakiak adosteko prozesuak •Hausnarketa jarduerak	•Parte-hartzeari dagokiona= %80	•Prestakuntzaren balorazioa= 8	Zuzendaritza	X	X		
Batxillergoarekin koordinazio pedagogikoa antolatzea.	•Erabakiak adosteko prozesuak •Antolaketa jarduerak		•Betetze mailaren balorazioa= 8	Zuzendaritza			X	
Arloetako hizkuntza behar bereziak definitzea. Behar horiek lantzeko eduki eta estrategiak hizkuntza arloarekin aztertzea eta adostea.	•Prestakuntza edo trebatze jarduerak •Hausnarketa jarduerak			Besterik: Ikasketaburuak	X	X	X	X
Hizkuntza Trataera Bateratuaren ildotik koordinazioa areagotzea.	•Erabakiak adosteko prozesuak •Antolaketa jarduerak		•Betetze mailaren balorazioa= 8	Hizkuntz Proiektua taldea	X			
Zehar-lerroen hizkuntza irizpideak adostea eta idaztea.	•Erabakiak adosteko prozesuak		•Betetze mailaren balorazioa= 8	Besterik: Ikasketaburuak			X	
Euskara eta euskal kultura sustatzeko irizpideak idaztea	•Mantentze jarduerak •Sentiberatze-motibazio jarduerak	•Betetze maila= %90		Euskaraz Bizi Taldea (HNT)	X	X	X	X

	•Ebaluazio jarduerak •Erabakiak adosteko prozesuak •Hausnarketa jarduerak							
Hizkuntza gelan dagokion harreman-hizkuntza erabiltzen jarraitzea.	•Mantentze jarduerak		•Betetze mailaren balorazioa= 9	Besterik: Ikasketaburuak	X	X	X	X
Irakasleen hizkuntza euskara dela bermatzen jarraitzea.	•Mantentze jarduerak		•Betetze mailaren balorazioa= 9	Besterik: Ikasketaburuak	X	X	X	X
Hizkuntza hobekuntzarako prestakuntzak egitea.	•Prestakuntza edo trebatze jarduerak	•Prestakuntza jasotzaile posibleekin alderatuz= %80	•Parte-hartzearen balorazioa= 8	Zuzendaritza	X	X	X	X
Ikasleen arteko hizkuntza erabilera arlo bakoitzari dagokiona dela bermatzen jarraitzea.	•Mantentze jarduerak		•Betetze mailaren balorazioa= 9	Besterik: Irakasleak	X	X	X	X
Taldekatze berriak egiterakoan hizkuntza irizpide adostuak kontuan hartzen jarraitzea.	•Mantentze jarduerak		•Betetze mailaren balorazioa= 9	Besterik: Irakasleak	X	X	X	X
Konpetentzien lanketarako ikasmaterialen baliagarritasuna aztertzea.	•Hausnarketa jarduerak		•Betetze mailaren balorazioa= 9	Besterik: Ikasketaburuak	X	X		
Hizkuntza-gela premia guztiak asetzea.	•Besterik		•Betetze mailaren balorazioa= 9	Zuzendaritza	X	X	X	X
IKT baliabideetan euskara bermatzea.	•Besterik		•Betetze mailaren balorazioa= 9	Besterik: IKT arduradunak	X	X		

1.3. ATALA: EREMU INSTITUZIONALA - KANPO HARREMANAK (1. ZATIA)

HELBURUA	JARDUERA MOTAK	ADIERAZLE KUANTITATIBOAK	ADIERAZLE KUALITATIBOAK	ARDURADUNAK	DENBORALIZAZIOA			
					10-11	11-12	12-13	13-14
• Beste ikastetxeekiko harremanak %100 euskaraz izaten jarraitzea.	• Besterik • Ebaluazio jarduerak	• Betetze maila= %80		Zuzendaritza	X	X	X	X
• Hornitzaileei begira hizkuntza protokoloaren jarraipena egitea	• Ebaluazio jarduerak	• Betetze maila= %90		Hizkuntz Proiektua taldea	X	X	X	X

1.4. ATALA: EREMU INSTITUZIONALA - KANPO HARREMANAK (2. ZATIA)

HELBURUA	JARDUERA MOTAK	ADIERAZLE KUANTITATIBOAK	ADIERAZLE KUALITATIBOAK	ARDURADUNAK	DENBORALIZAZIOA			
					10-11	11-12	12-13	13-14
• Udal eta beste herri-erakundeekin harremanak euskaraz izaten jarraitzea.	• Ebaluazio jarduerak • Antolaketa jarduerak	• Betetze maila= %90		Zuzendaritza	X	X	X	X
• Herriko gizarte-elkarteekin harremanak %100 euskaraz izaten jarraitzea.	• Ebaluazio jarduerak • Antolaketa jarduerak	• Betetze maila= %90		Hizkuntz Proiektua taldea	X	X	X	X

2.1. ATALA: EREMU PEDAGOGIKOA - GELA BARRUKOA (IKASLEAK)

HELBURUA	JARDUERA MOTAK	ADIERAZLE KUANTITATIBOAK	ADIERAZLE KUALITATIBOAK	ARDURADUNAK	DENBORALIZAZIOA			
					10-11	11-12	12-13	13-14
- Ikasleen hizkuntza jarrerak mantentzen jarraitzea	• Mantentze jarduerak • Ebaluazio jarduerak	• Betetze maila= %90		Besterik: irakasleak	X	X	X	X

2.2. ATALA: EREMU PEDAGOGIKOA - GELA BARRUKOA (IRAKASLEAK)

HELBURUA	JARDUERA MOTAK	ADIERAZLE KUANTITATIBOAK	ADIERAZLE KUALITATIBOAK	ARDURADUNAK	DENBORALIZAZIOA			
					10-11	11-12	12-13	13-14
Irakasleen hizkuntza kalitatea (erregistroak, euskalkiak...) hobetzeko plangintza egitea.	• Prestakuntza edo trebatze jarduerak • Hausnarketa jarduerak • Antolaketa jarduerak		• Betetze mailaren balorazioa= 9 • Prestakuntzaren balorazioa= 9 • Asebetetzearen balorazioa= 9	Zuzendaritza	X	X		
Irakasleek prestakuntzarako proiektuetan parte hartzen jarraitzea.	• Prestakuntza edo trebatze jarduerak • Antolaketa jarduerak		• Betetze mailaren balorazioa= 9	Hizkuntz Proiektua taldea	X	X	X	X

2.3. ATALA: EREMU PEDAGOGIOA - GELAZ KANPOKOA (HEZITZAILEAK) + EREMU INSTITUZIONALA-IKASTETXEA (LANGILEAK)

HELBURUA	JARDUERA MOTAK	ADIERAZLE KUANTITATIBOAK	ADIERAZLE KUALITATIBOAK	ARDURADUNAK	DENBORALIZAZIOA			
					10-11	11-12	12-13	13-14
- Hezitzaileen euskara kalitatea hobetzeko plana antolatzea.	• Prestakuntza edo trebatze jarduerak • Antolaketa jarduerak	• Betetze maila= %90		Hizkuntz Proiektua taldea	X	X	X	X
Hezitzaileen euskararekiko jarrera baikorra bermatzea	• Mantentze jarduerak	• Betetze maila= %90		Hizkuntz Proiektua taldea	X	X	X	X
Hizkuntzaren kalitatea (erregistroak) hobetzeko	• Prestakuntza edo trebatze jarduerak		• Asebetetzearen balorazioa= 9	Hizkuntz Proiektua taldea	X	X		

prestakuntza antolatzea								
Paisaia eta komunikazioetan euskara bermatzeko baliabideez hornitzen jarraitzea.	•Mantentze jarduerak •Ebaluazio jarduerak	•Betetze maila= %90		Hizkuntz Proiektua taldea	X	X	X	X

2.4. ATALA: EREMU INSTITUZIONALA - FAMILIA

HELBURUA	JARDUERA MOTAK	ADIERAZLE KUANTITATIBOAK	ADIERAZLE KUALITATIBOAK	ARDURADUNAK	DENBORALIZAZIOA			
					10-11	11-12	12-13	13-14
Familia barruko hizkuntza erabilera aztertzea.	•Ebaluazio jarduerak •Hausnarketa jarduerak		•Parte-hartzearen balorazioa= 9	Zuzendaritza	X	X		
Ikastola eta gurasoen arteko harremanetako (guraso bilerak) hizkuntza erabilerarako protokoloa mantentzea.	•Mantentze jarduerak •Ebaluazio jarduerak	•Betetze maila= %90		Zuzendaritza	X	X	X	X
Familia-tipologia bakoitzari egokitutako prestakuntza bideratzea.	•Sentiberatze-motibazio jarduerak •Prestakuntza edo trebatze jarduerak •Antolaketa jarduerak		•Betetze mailaren balorazioa= 9	Hizkuntz Proiektua taldea	X	X	X	X
Bailarako gurasoentzat antolatutako transmisio kanpainak bultzatzea	•Sentiberatze-motibazio jarduerak •Hausnarketa jarduerak		•Parte-hartzearen balorazioa= 8	Euskaraz Bizi Taldea (HNT)	X	X	X	X
Euskararekiko jarrera positiboa mantentzen jarraitzea.	•Mantentze jarduerak			Zuzendaritza	X	X	X	X
Sarrera-irteeretakako hizkuntza ohituretan eragiteko estrategiak	•Mantentze jarduerak •Sentiberatze-motibazio jarduerak	•Betetze maila= %90		Euskaraz Bizi Taldea (HNT)	X	X	X	X

aztertu eta aplikatzea.	•Hausnarketa jarduerak							
Gurasoen informaziorako hizkuntza irizpideak mantentzea.	•Mantentze jarduerak •Ebaluazio jarduerak		•Betetze mailaren balorazioa= 9	Zuzendaritza	X	X	X	X
Ikasleen eta euren familien arteko hizkuntza ohiturak aztertzea estrategia egokiak sortzeko.	•Mantentze jarduerak •Ebaluazio jarduerak •Hausnarketa jarduerak	•Betetze maila= %90		Hizkuntz Proiektua taldea	X	X	X	X

3.1. ATALA: EREMU PEDAGOGIKOA - GELAZ KANPOKOA

HELBURUA	JARDUERA MOTAK	ADIERAZLE Kuantitatiboak	ADIERAZLE Kualitatiboak	ARDURADUNAK	DENBORALIZAZIOA			
					10-11	11-12	12-13	13-14
Jolasaldietan, irteeretan, egonaldietan edo kanpaldietan irakasleen arteko harremanetan hizkuntza beti euskara izaten jarraitzea	•Mantentze jarduerak •Ebaluazio jarduerak	•Betetze maila= %100		Besterik: irakasleak	X	X	X	X
Jolasaldietan, irteeretan, egonaldietan edo kanpaldietan ikasleen gehiengoak euskaraz hitz egiten jarraitzea.	•Mantentze jarduerak •Sentiberatze-motibazio jarduerak •Ebaluazio jarduerak	•Betetze maila= %90		Hizkuntz Proiektua taldea	X	X	X	X
Ama hizkuntza gaztelania duten ikasleekin estrategia berriak lantzea	•Mantentze jarduerak •Sentiberatze-motibazio jarduerak •Hausnarketa jarduerak	•Betetze maila= %90		Hizkuntz Proiektua taldea	X	X	X	X
Euskaraz Biziko kanpainak antolatzen jarraitzea eta estrategia berriak sortzea	•Mantentze jarduerak •Sentiberatze-motibazio jarduerak •Hausnarketa jarduerak	•Betetze maila= %90		Hizkuntz Proiektua taldea	X	X	X	X
Ekintzak antolatzerakoan hizkuntza irizpideak ere	•Ebaluazio jarduerak •Antolaketa jarduerak	•Betetze maila= %90		Zuzendaritza	X	X	X	X

kontuan hartzen jarraitzea								
Jantokiko eta garraioa komunikazio egoerak hizkuntzaren mesedetara jartzea, estrategia berriak aplikatuz.	•Mantentze jarduerak •Sentiberatze-motibazio jarduerak •Hausnarketa jarduerak	•Betetze maila= %90		Hizkuntz Proiektua taldea	X	X	X	X
Jai eta ospakizunetako egoerak euskararen mesedetarako izaten jarraitzea.	•Mantentze jarduerak •Sentiberatze-motibazio jarduerak	•Betetze maila= %90		Hizkuntz Proiektua taldea	X	X	X	X
Jaietan eta ospakizunetan partaideen arteko hizkuntza erabilera euskaraz izan dadin bermatzea	•Mantentze jarduerak •Sentiberatze-motibazio jarduerak •Antolaketa jarduerak	•Betetze maila= %90		Hizkuntz Proiektua taldea	X	X	X	X

3.2. ATALA: EREMU INSTITUZIONALA - KANPO HARREMANAK (3. ZATIA)

HELBURUA	JARDUERA MOTAK	ADIERAZLE KUANTITATIBOAK	ADIERAZLE KUALITATIBOAK	ARDURADUNAK	DENBORALIZAZIOA			
					10-11	11-12	12-13	13-14
Hezkuntzarekin zerikusia duten herri-erakundeetan parte hartzen jarraitzea.	•Antolaketa jarduerak		•Parte-hartzearen balorazioa= 8	Zuzendaritza	X	X	X	X
Euskara bermatzea duten herri-ekimenetan eragile moduan parte hartzea.	•Sentiberatze-motibazio jarduerak •Antolaketa jarduerak		•Parte-hartzearen balorazioa= 9	Hizkuntz Proiektua taldea	X	X	X	X
Herri-erakundeekin harremanak euskaraz izaten jarraitzea.	•Mantentze jarduerak •Antolaketa jarduerak		•Betetze mailaren balorazioa= 9	Zuzendaritza	X	X	X	X